

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Araudi Akademikoa

Graduko ikasketak
2020-2021 Ikasturtea

Arrasate, 2020ko urriaren 1a

0. ALDAKETEN HISTORIALA

Bertsioa	Data	Egindako aldaketa
2020-2021 ikasturtea	2020.10.13	<p>1.- 'VII.- ELKARBIZITZARAKO JOKABIDE ARAUAK' atalean ondoko eskubideak txertatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bakartuta edo berrogeialdian dauden ikasleek ere klaseak jarraitu ahalko dituzte. <p>2.- 'VIII. IRAKASPENEN EBALUAZIOA' atalean ondoko bi eskubideak txertatu dira</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontrol puntuak online eran ere egin ahal izango dira kasu jakin batzuetan.
2020-2021 ikasturtea	2020.09.01	<p>1.- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko.</p> <p>2.- Araudi honen esparru diren lege erreferentziak eguneratu.</p> <p>3.- III atalean (GRADUKO IKASKETEN EZAUGARRIAK), 2020-21 ikasturtean indarrean dauden ikasketen planen informazioa eguneratu da.</p> <p>4.- VII.atala Ikaslearen egutegia izatetik (ELKARBIZITZARAKO JOKABIDE ARAUAK) izatera pasatu da.</p> <p>5.- VIII "ebaluazio jardueri buruzko jarraibideak" azpi atalean "Ebaluazio jardueri buruzko jarraibideak" izeneko azpi atal bat gehitu da.</p> <p>6.- "Ikasleen jarraipen eta aurrerapena" azpi atalean ikaste emaitzen ebaluazioari dagokionez salbuespena bat txertatu da: "Ikaste emaitza bat ehuneko ehuneko Seihileko Proiektuarekin ebaluatzen den kasuetan, delako ikaste emaitza hori suspendituz gero errekupezko aukerarik ez da egongo".</p> <p>7.- "Deialdi Gehigarria" azpia atalean egoera berri bat sartu da: Hirugarren mailan NUEV: suspenditutako ECTS kop. $0 < X \leq 6$ ECTS ikasleek eskatu dezakete. Eta gainera deialdi hau sartzeko prozedura zehatu da.</p> <p>8.- "Graduko 4. Mailako ebaluazioa" azpi atalean esplizituki azaldu da Konpentsazio sisteman ez direla kontuan hartzen ikasleak aurreko ikasturteren baten TFG eta praktikan ateratako balizko kalifikazioak.</p> <p>9.- XVI. Atalean (ESPARRUAK ETA ESKUMENAK) espresuki adierazi da araudi honetan zehar jasotako arauak ez betetzea, falta arin edo larritzat har daitekeela.</p> <p>10.- VI.Eranskia erantsi da "Deialdi gehigarria eskatzeko eskaera-orria"</p>
2019-20 ikasturtea	2019-09-02	<p>1.- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko.</p> <p>2.- Araudi honen esparru diren lege erreferentziak eguneratu.</p> <p>3.- Unibertsitateak Tituluaren Gehigarri Europarra, Gradu, Master edota Doktoregoko tituluarekin batera derrigorrez eman behar duela adierazi da; alegia, ikasleak eskatu beharrik izan gabe.</p> <p>4.- III atalean (GRADUKO IKASKETEN EZAUGARRIAK), 2019-20 ikasturtean indarrean ez dauden 2017 aurretiko ikasketen planen buruzko informazioa ezabatu da.</p> <p>5.- 'IKASKETAK EGITEKO ONARPENA' azpiatalean I. Eranskinera (TITULU ALDAKETA ESKATZEA) zuzentzen duen parrafoa txertatu da.</p> <p>6.- VIII atalean (IRAKASPENEN EBALUAZIOA) azpiatal bat txertatu da: 'KALIFIKAZIO SISTEMA'.</p> <p>7.- VIII ataleko (IRAKASPENEN EBALUAZIOA) 'EBALUAZIO SISTEMA' azpiatalean deialdi gehigarri baterako eskubidea zehaztu da, bertan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten ikasleei zuzendua.</p> <p>8.- XIII atalean (IRAUPEN ARAUDIA), derrigorrezko bajaren kasuan, gehitu da, deialdi gehigarrian ere ikasgaia ez gainditzeagatik ere ikasketak derrigorrean utzi behar dutela.</p> <p>9.- IV. Eranskinean (EZGAITASUN BAT AITORTUA IZATEAGATIK ONURA ETA ESKUBIDEEN ESKAERA) parrafo berri bat txertatu da. Honekin ikasleak baimena ematen dio Mondragon Goi Eskola Politeknikoari bere datu pertsonalak OSARTEN, S. Coop-i lagatzeko.</p> <p>10.- Araudiaren testu osoa berrikusi da hizkuntza inklusiboaren erabilera sustatzeko</p> <p>11.- 'Seihileko Proiektua' izena 'PBL' laburduraren ordez jarri dokumentuan zehar</p>
2018-19 ikasturtea	2018-09-10	<p>1.- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko.</p> <p>2.- Araudi honen esparru diren lege erreferentziak eguneratu.</p> <p>3.- Gradu ikasketetarako onartzeko prozesua aldatu.</p>

		<p>4.- Ingeniaritza Mekanikoko eta Elektronikako Ingeniaritzako Graduak egokitzeko ikasturteetako ikasketa planak eguneratu. titulu horien ikasketa planetara egokitzeko.</p> <p>5.- Campus bakoitzeko ikasturteen eta seihilekoen hasieraren gaineko taula zehatza ezabatu eta Intraneterako esteka eman, han baitago argitaratuta campus bakoitzaren eskola egutegia.</p> <p>6.- 'Irakaspenen ebaluazioa' atala aldatu.</p> <p>7.- IX atala aldatu (GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILE GISA EDO ERRENDIMENDU ETA MAILA HANDIKO KIROLARI GISA EGIAZTATUTAKO IKASLEEN ESKUBIDEAK).</p> <p>8.- Atal berri bat gehitu: X atala. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO EALKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK.</p> <p>9.- X ataletik aurrera araudiaren atalei zenbaki berria eman.</p> <p>10.- XI atala aldatu. (EZGAITASUNA DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK).</p> <p>11.- Araudi honen Eranskinei zenbaki berriak eman.</p> <p>12.- Atzerriko noten birmoldaketak edo baliokidetasunak jasotzen dituen taula ordezteza (A Eranskina)</p>
2017-18 ikasturtea	2017-09-01	<p>1.- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko.</p> <p>2.- Arautegi honek jasotzen dituen ikasketetan Mekatronikako Ingeniaritza Gradua sartu da.</p> <p>3.- 2017 urte aurreko Graduko ikasketa planen ezaugarriak eta 2017ko ikasketa planena desberdindu.</p> <p>4.- Jadanik indarrean ez dauden egokitzapen kurtsoei buruzko informazioa ezabatu, eta indarrean daudenak 2017ko ikasketa planetara egokitu dira.</p> <p>5.-'Irakaspenen ebaluazioa' atala moldatu da.</p> <p>6.-'Ikasle izateari uztea' atala moldatu da, lehen eta bigarren seihilekotako notak (kasuan kasukoa) zein datatik aurrera behin betikoak izango diren finkatzeko.</p>
2016-17 ikasturtea	2016-09-01	<p>1.- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko.</p> <p>2.- VIII atalean 'Irakaspenen ebaluazioa' puntu kontrol baten iruzur egiteak edo lanen baten edo txostenen baten kopiatzeak, eta abar,... ekar dezakeen ondorio akademikoa zehaztu da.</p> <p>3.- GBLa aurkezteko bete behar diren baldintzak zehaztu dira, ebaluazio-irizpide berrien arabera.</p> <p>4.- IX atala gehitu: 'Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu eta maila handiko kirolari gisa egiaztatutako ikasleen eskubideak.</p> <p>5.- X atala gehitu: 'Ezgaitasunak dituzten ikasleen eskubideak'.</p> <p>6. IX eta X atal berriak sartzearen ondorioz aldatu diren gainontzeko atalen zenbakiak egokitu dira.</p>
2015/16 ikasturtea	2015-09-30	<p>1.-Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu ikasturte berrira egokitzeko.</p> <p>2.- Graduko 3. mailako ebaluazio sistema 1. eta 2. mailakoaren berdina izango dela adierazi</p> <p>3.- 4. mailako ikasleek mugikortasun egonaldietan lortutako emaitzen ebaluazioari buruzko testua aldatu eta II. Eranskinean gehitu.</p> <p>4.- Atal bat gehitu: XI.- Euskararen C1 maila ziurtatetik salbuestea</p> <p>5. Bi eranskin gehitu: I. eranskina.- Titulu aldaketa eskatzea. II. eranskina- Mugikortasun egonaldietan lortutako emaitzen ebaluazioa.</p>

AURKIBIDEA

0. ALDAKETEN HISTORIALA	1
I.- SARRERA	4
II. KONTZEPTUAK	5
III. GRADU IKASKETEN EZAUGARRIAK	8
IV. GRADU IKASKETAK EGITEKO SARBIDEA ETA ONARPENA	10
V. MATRIKULA	17
VI. IKASLE IZATEARI UZTEA	18
VII. ELKARBIZITZARAKO JOKABIDEA ARAUAK	19
VIII. IRAKASPENEN EBALUAZIOA	22
IX. GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILE GISA EDO ERRENDIMENDU ETA MAILA HANDIKO KIROLARI GISA EGIAZTATUTAKO IKASLEEN ESKUBIDEAK	30
X. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK	34
XI. EZGAITASUNA DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK	37
XII. MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA	40
XIII. IRAUPEN ARAUTEGIA	41
XIV. EUSKARAREN C1 MAILA ZIURTATZETIK SALBUESTE	42
XV. MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEA	43
XVI. ESPARRUA ETA ESKUMENAK	45
I. ERANSKINA.- TITULU ALDAKETA ESKATZEA	46
II.ERANSKINA- GOI MAILAKO EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZAERA EDO HORREKIN PAREKAGARRI DEN IZAERA AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA	48
III. ERANSKINA.- IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN IZAERA AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA	51
IV. ERANSKINA.- EZGAITASUN BAT AITORTUA IZATEAGATIK ONURA ETA ESKUBIDEEN ESKAERA	54
V. ERANSKINA- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA	57
VI. ERANSKINA.- DEIALDI GEHIGARRIA ESKATZEKO ESKAERA-ORRIA	59

I.- SARRERA

Goi Eskola Politekniko (GEP) honetako Gradu ikasketa unibertsitarioen irakaslan eta jardura akademikoa urriaren 29ko 1393/1997¹, Errege Dekretuaren babespean garatzen da, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak MONDRAGON UNIBERTSITATEARI homologatu dizkion ikasketa planetan oinarrituz.

Dena den, Eskola honetan, Gradu ikasketen ezarpena, egokitzapen formal hutsetik harago, hezkuntza ereduaren eta ikaskuntza-irakaskuntza metodologiaren egokitzapen sakon gisa ulertu dugu. Hezkuntza eredu honetan, bi dira arrakastaren giltzarriak; batetik, **ikasleak** ikaskuntza prozesuan parte hartzeko **hartzen duen konpromisoa**, eta bestetik, ikaslearen jarraipena egiten duen **irakasle taldearen konpromisoa**. Konpromiso horren esanahia zera da: eskoletara joatea, proposatutako ariketa eta praktikak egitea, sei hilabeteko proiektuaren lanketa etab., modu etengabe eta parte hartzailean.

Hori hala, iraupen arautegiari dagokion atalean irakur daitekeen legez, ikasturtean zehar bere ahalegina egiteko konpromisoa hartzen ez duenak ez du azken azterketan dena arriskatu ahal izango, ez zaio-eta hori egiten utziko. Hezkuntza ereduarekin konpetentziak hartzea nahi da, eta konpetentzien jabetza izanez, jakinez, eta egiten jakinez erakusten da.

Ikasteko modu berri horiekin bat eginez, ebaluazio sistema ere funtsezko eran aldatzen da, dagokion atalean nabarmentzen den legez, eta 'konpetentziak hartzea', 'etengabeko ebaluazioa', 'ebaluazio globala' eta antzeko kontzeptuei bide ematen zaie.

Bestalde, ikasleari Europako Goi Hezkuntzako Espazio berritik datorren terminologia oinarritzkoenean trebatzen laguntzeko, Arautegi Akademiko honetako lehen orrietan 'Kontzeptuak' izeneko atala txertatu da.

¹ 1393/2007 Errege Dekretua hainbat aldiz aldatu da. Aldaketa horiek BOEn argitaratu dira, egun hauetan:

- 1. aldaketa: 2007/10/03an argitaratua
- 2. aldaketa: 2011/02/10ean argitaratua
- 3. aldaketa: 2013/07/13an argitaratua
- 4. aldaketa: 2014/03/05ean argitaratua
- 5. aldaketa: 2014/11/22an argitaratua
- 6. aldaketa: 2015/02/03an argitaratua
- 7. aldaketa: 2015/06/17an argitaratua
- 8. aldaketa: 2016/06/03an argitaratua
- 9. aldaketa (azkena): 2019/03/15an argitaratua

II. KONTZEPTUAK

UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZA OFIZIALEN EGITURA

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren (harrezkero hainbat aldiz aldatuta²) 37 eta 38 artikuluetan ezarritakoari jarraiki, unibertsitate irakaskuntza ofizialak hiru ziklotan egituratzen dira: GRADUA, MASTERRA ETA DOKTORETZA.

Hona hemen artikuluek diotena hitzez hitz jasota:

“Artículo 37. Estructura de las enseñanzas oficiales.

Las enseñanzas universitarias se estructurarán en tres ciclos: Grado, Máster y Doctorado. La superación de tales enseñanzas dará derecho, en los términos que establezca el Gobierno, previo informe del Consejo de Universidades, a la obtención de los títulos oficiales correspondientes.

Artículo 38. Doctorado.

Los estudios de doctorado, conducentes a la obtención del correspondiente título de carácter oficial y validez en todo el territorio nacional, que tienen como finalidad la especialización del estudiante en su formación investigadora dentro de un ámbito del conocimiento científico, técnico, humanístico o artístico, se organizarán y realizarán en la forma que determinen los estatutos, de acuerdo con los criterios que para la obtención del título de Doctor apruebe el Gobierno, previo informe del Consejo de Universidades. En todo caso, estos criterios incluirán la superación de un período de formación y la elaboración, presentación y aprobación de un trabajo original de investigación.”

GRADUKO IKASKETAK³ (1393/2007 Errege Dekretutik hitzez hitz jasota): *“Las enseñanzas de Grado tienen como finalidad la obtención por parte del estudiante de una formación general, en una o varias disciplinas, orientada a la preparación para el ejercicio de actividades de carácter profesional.*

² Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren hainbat aldiz aldatu da. Aldaketa horiek BOEn argitaratu dira, egun hauetan:

Hasierako testua: 2001/12/24

1.aldaketa: 2005/06/07

2.aldaketa: 2007/04/13

3.aldaketa: 2011/06/02

4.aldaketa: 2012/04/21

5.aldaketa: 2013/07/02

6.aldaketa: 2013/12/10

7.aldaketa: 2014/09/17

8.aldaketa: 2015/09/12

9.aldaketa: 2016/03/23

10.aldaketa: 2017/06/28

11.aldaketa: 2018/07/04

12.aldaketa: 2018/12/06

Azken aldaketa: 2020/05/06

³ Unibertsitateko ikasketa ofizialen antolaketari buruzko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuko 9.artikulua

II. Kontzeptuak

La superación de las enseñanzas previstas en el apartado anterior dará derecho a la obtención del título de Graduado o Graduada, con la denominación específica que, en cada caso, figure en el RUCT (Registro de Universidades, Centros y Títulos)”

GRADUKO IKASKETAK⁴ (1393/2007 Errege Dekretutik hitzez hitz jasota): *Las enseñanzas de Máster tienen como finalidad la adquisición por el estudiante de una formación avanzada, de carácter especializado o multidisciplinar, orientada a la especialización académica o profesional, o bien a promover la iniciación en tareas investigadoras.*

La superación de las enseñanzas previstas en el apartado anterior dará derecho a la obtención del título de Máster Universitario, con la denominación específica que figure en el RUCT.

ECTS KREDITUA: ECTS kreditua da ikasleek ikasketa plan batean programatutako helburuak gainditzeko egin beharreko lan bolumen edo lan karga neurtzeko hartutako unitatea. ECTS bat, ikasle baten 25-30 lanorduri dagokio. GEP honetako ikasketa planetan, ECTSari 25 lanordu esleitu zaizkio.

Ildo horretan, funtsezko alde bat dago egungo kreditu sistemarekin alderatuta, izan ere, egungo sistemak irakasleak ematen duen ordu kopurua baino ez du kontuan hartzen, irakasleak aurreikusitako helburuak lortzeko ikasleak egin beharreko ahaleginari erreparatu barik.

Ikasturte batek 60 ECTS dauka, hau da, 1500 ordu. Horrek esan nahi du ikasleak 1500 orduko dedikazioa bete behar duela ikasturtean zehar, kontuan hartuta eskola orduak, gehi talde laneko denbora, gehi laborategietan edota informatika geletan egindako praktika orduak, gehi lan pertsonala.

TITULUARI EGINDAKO GEHIGARRI EUROPARRA: Agiri ofiziala da, eta Goi Hezkuntzako titulazioen gardentasuna handitzeko zehaztu eta diseinatu zen. Gehigarri horri esker, titulazioen aitortpena, ikasleen mugikortasuna eta ikasleok Europako lan merkatuan integratzea erraztuko dira.

Bertan, modu pertsonalizatuan, kasuan kasuko ikasleari dagokion informazio hau bilduko da: egindako ikasketak, lortutako emaitza akademikoak, hartutako gaitasun profesionalak eta goi hezkuntzako sistema nazionalean haren titulazioak duen maila.

Informazio hori Europako Goi Hezkuntzako Espazioaren proiektua osatzen duten herrialdeen foroak zehaztu du; eta Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak zehaztutako formatua duen kartoi mehe espezifiko batean jaulki da.

Tituluari egindako Gehigarri Europarra unibertsitate ikasketa ofizialak bukatzen dituzten ikasleek eska dezakete; eta normalean titulu ofizialarekin batera edo ondoren eskatzen da.

Gehigarriaren jaulkipena 2003-04an jarri zen indarrean. Beraz, Gradu, Master edota Doktoregoko tituluren bat data horren ostean eta 2015eko urtarrilaren 23aren aurretik jaso duen edonork eska dezake.

Urtarrilaren 23ko 22/2015 Errege Dekretuak, zeinak 1393/2007ak araututako tituluaren Gehigarri Europarra nola eman behar den zehazten baituen, ezarri zuen Unibertsitateek Tituluaren Gehigarri Europarra ikasleak

⁴ Unibertsitateko ikasketa ofizialen antolaketari buruzko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuko 10.artikulua

II. Kontzeptuak

eskuratutako kasuan kasuko titulu ofizialarekin batera eman beharko dutela. Beraz, 2015ko urtarrilaren 24tik aurrera ikasleek ez daukate Gehigarri Europarra eskatu espreski edota tituluaz gain eskatu beharrik.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZAKO IRAKASGAIK: MGEP-eko Gradu ikasketa plan guztiek oinarrizko prestakuntzako 60 ECTS daukate, ikasketa planeko lehen ikasturte bietan eskainitako gaietako dagozkionak Gainera, horietako batzuk (36 ECTSraino) Gradu tituluak atxikitzen diren Ingeniaritza eta Arkitekturako adarrekin lotuta daude.

NAHITAEZKO IRAKASGAIK: MGEPen sartzen diren irakasgai komunak dira, irakaspen horiek egiten dituzten ikasleek derrigorrez bete beharrekoak.

GRADU BUKAERAKO LANA: Arautegi hau osatzen duten irakaspen guztiak Gradu Bukaerako Lan batekin bukatzen dira. Ikuspegiak eta helburuak desberdinak dira, ikasleak ikasketak bukatzean aukeratutako orientazioaren arabera: lan munduan sartzeko edo Master ikasketekin jarraitzea.

ENPRESAKO PRAKTIKAK: Enpresako praktikak Gradu Bukaerako Lanaren garapenari loturik daude. Eta Enpresa ibilbidea boluntarioki aukeratu duten ikasleek egingo dituzte.

III. GRADU IKASKETEN EZAUGARRIAK

Jarraian datorren taulan, Graduiko titulu bakoitzaren ikasketa planaren funtsezko ezaugarriak laburbiltzen dira. Bertan, zera zehazten da: ikasketen iraupena; tituluaren kreditu kopuru totala eta kredituen banaketa gai motaren arabera; ea tituludunek eskudantzia profesionalik izango duten aitorturik ala ez; eta titulua zein ezagutza adarri atxikitzen zaion.

2017.urtearen aurreko planak

Gradu hemen:	ikasketak	Telekomunikazi o Sistemen Ingeniaritza
IKASGAI MOTA		ECTS KOPURUA
Oinarrizko prestakuntza		60
Nahitaezkoak		117
Aukerakoak		51
Gradu lana:	bukaerako	12
Guztira		240
IKASKETEN IRAUPENA		4 URTE
ESKUDANTZIA PROFESIONALAK		BAI
TITULUA EZAGUTZA	ZEIN	Ingeniaritza eta Arkitektura
ADARRETAKO DEN		

2017ko plana

Gradu hemen:	ikasketak	Ingeniaritza Mekanikoa	Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza	Industria Antolaketako Ingeniaritza	Industria Elektronikako Ingeniaritza	Informatikako Ingeniaritza
IKASGAI MOTA		ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA
Oinarrizko prestakuntza		60	60	60	60	60
Nahitaezkoak		108	105	105	114	105
Aukerakoak		60	63	63	54	63
Gradu lana:	bukaerako	12	12	12	12	12
Guztira		240	240	240	240	240
IKASKETEN IRAUPENA		4 URTE	4 URTE	4 URTE	4 URTE	4 URTE
ESKUDANTZIA PROFESIONALAK		BAI	EZ	EZ	BAI	EZ
TITULUA EZAGUTZA	ZEIN	Ingeniaritza eta Arkitektura	Ingeniaritza eta Arkitektura	Ingeniaritza eta Arkitektura	Ingeniaritza eta Arkitektura	Ingeniaritza eta Arkitektura
ADARRETAKO DEN						

III. Gradu ikasketen ezaugarriak

Gradu ikasketak hemen:	Energiaren ingeniari-tza	Ingeniari-tza biomedikoa	Industri Prozesuetako Ekoteknologia-tako ingeniari-tza	Ingeniari-tza mekanikoa
IKASGAI MOTA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA	ECTS KOPURUA
Oinarrizko prestakuntza	60	66	60	60
Nahitaezkoak	105	99	105	48
Aukerakoak	63	51	63	66
Kanpoko praktikak	0	12	0	54
Gradu bukaerako lana:	12	12	12	12
GUZTIRA	240	240	240	240
IKASKETEN IRAUPENA	4 URTE	4 URTE	4 URTE	4 URTE
ESKUDANTZIA PROFESIONALAK	EZ	EZ	EZ	EZ
TITULUA ZEIN	Ingeniari-tza eta Arkitektura	Ingeniari-tza eta Arkitektura	Ingeniari-tza eta Arkitektura	Ingeniari-tza eta Arkitektura
EZAGUTZA ADARRETAKO DEN				

2020 Plana

Gradu ikasketak hemen:	Mekatronikako ingeniari-tza
IKASGAI MOTA	ECTS KOPURUA
Oinarrizko prestakuntza	60
Nahitaezkoak	48
Aukerakoak	66
Kanpoko praktikak	54
Gradu bukaerako lana:	12
GUZTIRA	240
IKASKETEN IRAUPENA	4 URTE
ESKUDANTZIA PROFESIONALAK	EZ
TITULUA ZEIN	Ingeniari-tza eta Arkitektura
EZAGUTZA ADARRETAKO DEN	

IV. GRADU IKASKETAK EGITEKO SARBIDEA ETA ONARPENA

UNIBERTSITATEAN SARTZEN DIREN IKASLE BERRIAK

Ingeniaritzan dauden espezialitateetako GRADUko ikasketak egiteko, ikasleek honako baldintzetariko bat bete beharko dute:

- ✓ LOGSE Batxilergo titulua edo baliokide bat edukitzea eta Unibertsitatera sartzeko probak gaindituta izatea.
- ✓ Lanbide Heziketako Goi Mailako titulua edukitzea.
- ✓ Batxilergoarekin edo Lanbide Heziketako Goi Mailarekin homologa daitekeen atzerriko titulu bat edukitzea.

Eta hauek dira sartzeko lehenetsuna izango dutenak:

- ✓ LOGSE Batxilergo titulua Teknologia edo Zientzietako modalitatean atera eta Unibertsitatean sartzeko probak Aukera Zientifiko-Teknikoan gainditu dituztenak.
- ✓ Jarraian zehazten diren multzoen barruko Goi Mailako Prestakuntza Ziklo bat gainditu dutela egiaztatzen duten ikasleak, kontuan hartuta zein titulu eskuratu nahi den:

ZEIN TITULU ESKURATU NAHI DEN	MULTZO PROFESIONALA
INGENIARITZA MEKANIKOKO GRADUA	Fabrikazio Mekanikoa Instalazioa eta Mantentze lanak Mantentzea eta Produkziorako Zerbitzuak
INDUSTRIA DISEINUKO ETA PRODUKTU GARAPENEO INGENIARITZA GRADUA	Fabrikazio Mekanikoa Mantentzea eta Produkziorako Zerbitzuak Instalazioa eta Mantentze lanak
INDUSTRIA ANTOLAMENDUKO INGENIARITZA GRADUA	Fabrikazio Mekanikoa Elektrizitatea eta Elektronika Informatika Mantentzea eta Produkziorako Zerbitzuak Instalazioa eta Mantentze lanak
INDUSTRIA ELEKTRONIKAKO INGENIARITZA GRADUA	Elektrizitatea eta Elektronika
INFORMATIKAKO INGENIARITZA GRADUA	Informatika eta komunikazioak
ENERGIAREN INGENIARITZA GRADUA	Energia eta Ura Elektrizitatea eta Elektronika
BIOMEDIKUNTZAKO INGENIARITZAKO GRADUA	Osasuna Elektrizitatea eta Elektronika Fabrikazio Mekanikoa Informatika eta komunikazioak
INDUSTRIA PROZESUETAKO EKOTEKNOLOGIEN INGENIARITZA GRADUA	Fabrikazio Mekanikoa Energia eta Ura Segurtasuna eta Ingurumena
INGENIARITZA MEKATRONIKAKO GRADUA	Fabrikazio Mekanikoa Mantentzea eta Produkziorako Zerbitzuak Instalazioa eta Mantentze lanak Elektrizitatea eta Elektronika

IKASKETAK EGITEKO ONARPENA

Aurreko baldintzak beteta, ondorengo formula aplikatu ondoren ateratzen den onarpen notaren arabera egingo da onarpena. Nota hori 14 puntukoa izan daiteke gehienez ere.

Onarpen nota = Gutx. Sarrera notaren %60 + Gutx. curriculumari edo aurreko ikasketetan egindako modalitateari lotutako kalifikazioaren %5.+ Geh. Proba espezifikoaren %35

Dena dela, lehentasuna emango zaie selektibitatea amaitu dutenei edo aurreko ikasturtean prestakuntza zikloa amaitu dutenei. Edozein kasutan, Batxilergoko Azken Ebaluazioa (edo bestela Goi Mailako Prestakuntza Zikloa) 1. deialdian gainditu dutenek lehentasuna izango dute bigarren deialdian edo hurrengoetan gainditzeko dutenekiko.

Era berean, lehentasuna izango dute Unibertsitateak ezarritako epe arruntean izena eman duten ikasleek, ezohiko epean izena eman dutenen kaltetan.

Ikasleren batek hasitako ikasketak utzi eta beste batzuei ekin nahi dizkien kasuetan, I Eranskinean (TITULUA ALDATZEKO ESKAERA) ezarritakoaren arabera jokatu da.

KREDITUAK AITORTZEKO ETA TRANSFERITZEKO SISTEMAREN ARAU ESPARRUA

Lehena.- Kredituen aitorpena

Lehena.1) Kreditu aitorpena esaten dugunean, kredituak onartzeaz ari gara, kreditu horiek **irakaskuntza ofizialetan** lortu direnean, Mondragon Unibertsitatean edo beste Unibertsitate batean, eta Graduako irakaskuntzetan zenbatzen direnean (espezialitatea edozein delarik ere), titulu ofiziala lortze aldera.

Goi Eskola Politekniko honek beste Unibertsitate batzuetan egindako ikasketengatik lortutako kredituak aitortu ahal izango ditu, baita egindako ikasketetako gainerako gaiei lotutako konpetentzia eta ezagutzen egokitzapenaren arabera eta ikasketa planean aurreikusitakoen arabera ere, edota zeharkakoak badira, betiere ECTS kredituen eskola karga antzekoa baldin bada, gradu bukaerako lanari dagozkion kredituak izan ezik.

Edozein kasutan, aitortu daitekeen unitate txikiena ikasgaia izango da.

Lehena.1) atalean jasotakoaren arabera aitortutako kredituak zenbakizko kalifikazioen bidez kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Lehena. 2) Halaber, **unibertsitatez kanpoko goi mailako beste ikasketa ofizial batzuetan** ikasitako kreditu batzuk ere aitortu ahal izango dira, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan aipatzen direnen arabera.

IV. Gradu ikasketak egiteko sarbidea eta onarpena

Kredituak aitortzeko irizpideak Goi Mailako Hezkuntzako ikasketen aitortpenari buruzko azaroaren 14ko 1618/2011 Errege Dekretuan ezarritakoak dira:

- a) Ikasketak aitortzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: Goi Eskola Politekniko honetako graduak tituluko ikasgaien eta Goi Teknikariaren tituluko modulu edo ikasgaien arteko egokitzapena, konpetentziei, ezagutzei eta ikaskuntzako emaitzei dagokienez.
- b) Alegatutako Goi mailako Teknikari tituluen eta kasuan kasuko Graduak artean harreman zuzena badago, **gutxienez 30 ECTS kredituren aitortpena** bermatuko da.
- c) Helburu horrekin, gaur arte, Goi Eskola Politeknikoko Graduak harreman zuzena duten Goi Mailako honako Prestakuntza Ziklo hauek identifikatu dira:
- d) Beste kasuetan, harreman zuzenik ez baitute, aitortu daitezkeen kredituak gutxienez 3 ECTS dira.

Halaber, muga hauek ezarri dira kredituak aitortzeko:

- e) Kredituak aitortzeko prozedurarekin ezingo da inoiz Graduak ikasketa guztiak aitortu eta ondorioz Gradu titulua zuzenean eskuratu.
- f) Gradu bukaerako lanei dagozkien kredituak ez dira inola ere aitortuko ezta baliozkotu ere.
- g) Graduak aitortutako ECTSen kopurua ezingo da 144 baino gehiago izan.
- h) Edozein kasutan, aitortu daitezkeen unitate txikiena ikasgaia izango da.

Lehena.1) eta lehena.2) ataletan jasotakoaren arabera aitortutako kredituak zenbakizko kalifikazioen bidez kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

21 taula - Unibertsitate ikasketetan eskuratutako kredituen aitortpenaren taula⁵

Aitortutako gutxienezko ECTS kopurua	Aitortutako gehienezko ECTS kopurua
0	36

22 taula - Mekatronikako Ingeniaritza Graduak eskuratutako kredituen aitortpenaren taula

Aitortutako gutxienezko ECTS kopurua	Aitortutako gehienezko ECTS kopurua
0	66

Lehena.3) **Beste titulu batzuk lortzeko unibertsitate ikasketetan** eskuratutako beste kreditu batzuk ere aitortu ahal izango dira, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan aipatzen direnen arabera.

Edozein kasutan, aitortu daitezkeen unitate txikiena ikasgaia izango da.

⁵ Gradu guztiei aplikagarria, oro har, Ingeniaritza Mekatronikoko Graduak izan ezik

IV. Gradu ikasketak egiteko sarbidea eta onarpena

Lehena. 4) **Egiaztatutako lan eta lanbide esperientzia** ere kreditu moduan aitortu ahal izango da, eta konputatu egingo da Ingeniaritza Mekanikoko Graduak titulua lortzeko, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) Ikasleak laneko esperientzia agiri bidez egiaztatuta beharko du, agiri hauek aurkeztuz:
- Lan bizitzaren laburpen eguneratua.
 - Zuzendariaren edo goragoko arduradunaren ziurtagiria, eskatzailearen lanbide edo lan esperientziaren fede ematen duena, eta horretan gutxienez agertuko dira: esperientzia profesionalaren iraupena, eskatzaileak jardun duen lan eremua eta laneko eginkizunaren ezaugarriak.
 - Eskatzaileak berak egindako deklarazioa, alderdi hauek azalduko dituen: garatutako jarduera profesionala, jarduera horren bitartez lortutako kompetentzia profesionalak, lortutako ezagutzak, eta aitortza zein ikasgaitarako eskatu nahi duen.
- b) Aitortzarako gutxieneko unitatea ikasgaia eta berari atxikitako kompetentziak izango dira, eta ez da aitortuko ikasgai bat osatzen ez duten ECTS unitaterik. Eta gradu bukaerako lanen kredituak ere ezin izango dira aitortu.
- c) Egiaztatutako lanbide esperientziagatik lortutako kredituak aitortzeko irizpideak honako hauek izango dira:
- Unibertsitate titulu ofiziala edukitzea (Espainiakoa edo atzerrikoa)
 - Esperientzia profesionalaren denbora
 - Garatutako jarduera profesionalean eskainitako dedikazioa, osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa) edo partziala (garatutako jarduera profesionalaren %50en parekoa).
- d) Eskaeraren idatzia interesdunarekin egingo den elkarrizketa batez osatuko da; bertan, ikasgaiaren edo ikasgaien irakasleak/irakasleek ikasleak aitortzea nahi dituen ezagutzak eta kompetentziak eskuratu dituela egiaztatuko dute.
- c) puntuak jasotako hiru irizpideak konbinatuta ondoko taula ateratzen da, non unibertsitate titulu ofiziala duten ikasleei eskatzen zaien esperientzia profesionalaren denbora jasotzen baita:
Kredituak aitortzeko eskatzen den denbora:

23. taula – Esperientzia profesionalagatik kredituak aitortzea

AITORTZEKO UNITATEAK	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)	Dedikazio partziala (garatutako jarduera profesionalaren %50en parekoa)
Ikasketa planeko ikasgaiei dagozkien 4,5 ECTS aitortu ahal izango dira gehienez (eta ikasgai horiei lotutako kompetentziak)	12 hilabete	24 hilabete

Enpresako praktikei dagozkien kredituak aitortu ahal izango dira, betiere Graduak kompetentziak lortu direla egiaztatzen bada, baita kompetentzia horiek ikasgai zehatzetara esleitu ezin izan badira ere, edo esperientzia profesionala kasu bakoitzean dagozkion ikasgaiaren ECTS guztiak aitortzeko nahikotzat jo ez bada ere.

24. taula – Praktikak enpresan egiteagatik kredituak aitortzea, gradu guztietan Mekanikako Ingeniaritza graduan izan ezik

AITORTZEKO UNITATEAK	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %50en parekoa)
Gutxieneko unitatea: 4,5 ECTS	12 hilabete	24 hilabete
Gehienezko unitatea: 30 ECTS	78 hilabete	156 hilabete

25 taula – Praktikak enpresan egiteagatik kredituak aitortzea, Mekatronikako Ingeniaritza graduan

AITORTZEKO UNITATEAK	Dedikazio osoa (garatutako jarduera profesionalaren %100en parekoa)
Gutxieneko unitatea: 12 ECTS	6 urte
Gehienezko unitatea: 36 ECTS	18 urte

Lehena.3) eta lehena.4) ataletan jasotako kasuengatik aitortutako kredituak ez dira espedientearen baremazioarako zenbatuko.

Lehena. 5). Gehienez ere Ikasketa Planeko 6 ECTS aitortu ahal izango dira unibertsitateko kultur edo kirol jardueretan, ikasleen ordezkarietarako ekintzetan edo elkartasun zein lankidetzako ekintzetan parte hartzeagatik. Aurrekoaren ondorioetarako, Goi Eskola Politeknikoak urtero aitortzen hori eskuratzeko eskubidea ematen duten jarduerak emango ditu argitara, jarduera bakoitzean zenbat kreditu aitortu ahal izango diren eta jarduera horietan parte hartu dela egiaztatzeko zer mekanismo dauden adierazita.

Lehena. 6) Honako muga hauek ezarri dira kredituak aitortzeko:

- Gradu Bukaerako Lana ezingo da inola ere aitortu.
- Lan edo lanbide esperientziaren ondorioz eta beste titulu propio batzuk lortzeko egin diren unibertsitate irakaskuntzen ondorioz aitortutako kredituen kopurua, guztira, ezingo da 36 ECTS baino handiagoa izan.

Bigarrena.- Kredituen transferentzia

Kredituen transferentzia esaten dugunean, ikasle bakoitzak egindako ikasketen egiaztapen akademiko ofizialak txertatzeaz ari gara, hau da, Mondragon Unibertsitatean nahiz beste Unibertsitate batean aurretik egindako ikasketa ofizialetan lortutako kreditu guztiak txertatzeaz, titulu ofizial bat lortzeko adina izan ez badira ere.

Hirugarrena.- Espediente akademikoa

Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak, Mondragon Unibertsitatean nahiz beste Unibertsitate batean, titulua lortzeko irakaskuntza ofizialetan lortutako kreditu guztiak jasoko dira, kreditu transferituak, aitortuak edo gaitortuak izan, kasu bakoitzean dagokiona adierazita. Kreditu aitortuak direnean, jatorriko irakaskuntzei buruzko honako informazio hau agertu beharko da: unibertsitatea(k), irakaskuntza ofizialak eta horiek zein adarri atxikitzen zaizkion; lortutako gai edota irakasgaiak eta kreditu kopurua, eta eskuratzeko kalifikazioa. Azken informazio hori ez da agertuko lan edo lanbide esperientziaren bidez aitortutako kredituen kasuan.

Laugarrena.- Tituluaren gehigarri europarra

Ikasleei emandako Tituluari egindako Gehigarri Europarrak, ikasleak, Mondragon Unibertsitatean nahiz beste Unibertsitate batean, dagokion titulua lortzeko irakaskuntza ofizialetan lortutako kreditu guztiak islatuko ditu,

kreditu transferituak, aitortuak edo gaindituak izan, Espediente Akademikorako ezarri diren zehaztapen berberekin.

GRADU IKASKETAK EGITEKO SARBIDEA (AURREKO UNIBERTSITATE SISTEMEI DAGOZKIEN UNIBERTSITATE IKASKETAK EGINAK DITUZTENAK)

Aurreko ikasketa plan eta hezkuntza sistemen barruan Mekanika eta Industria Elektronikak espezialitateetako unibertsitate ikasketak burutuak dituzten ikasleek titulu bereko gradu ikasketak burutu nahi badituzte ondoko egokitzapen kurtsoak egin beharko dituzte

EGOKITZAPEN TAULAK

- o Ingeniaritza Mekanikoko Gradua

Industria Elektronikako Ingeniaritza Gradua Ingeniaritza Mekanikoko Graduko Egokitzapen Kurtsoa

IKASGAIA	MOTA	ECTS	SEIHILEK OA
Kimika	OP	6	1
Ingeniaritza Termikoa	D	4,5	1
Eragingailu elektrikoak	D	4,5	1
Elektronika eta Automatika	D	6	2
Ingurumeneko ingeniaritza	D	4,5	2
Diseinu mekanikoa	D	4,5	1
Makinen diseinu eta entsegua	HAU	4,5	2
Industria sistema fluidikoak	D	4,5	1
Materialen Ingeniaritza	D	4,5	2
Kalitateko ingeniaritza	D	4,5	2
Oinarri metodologikoak	D	6	1
Produkzioaren Ingeniaritza	D	3	2
Gradu Bukaerako Lana	GBL	12	2
<u>KREDITUAK GUZTIRA</u>		<u>69</u>	

Industria Elektronikako Ingeniaritza Gradu Egokitzapen Gradua

IKASGAIA	MOTA	ECTS	SEIHILEKOA
Kimika	OP	6	1º
Ingeniaritza Termikoa eta Fluidoena	D	6	1º
Materialen Zientzia, Teknologia eta Kimika	D	6	1º
Makina eta mekanismoen teoria	D	4,5	1º
Produkzio Sistemak eta Elektroteknologiak	D	3	1º
Sistema Robotizatuak	D	4,5	2º
Kalitate metodoak, segurtasuna eta ingurumena	D	3	1º
Industria Antolamendua	D	3	2º
Eragintza Elektrikoak	D	6	2º
Industria elektronikoa	D	4,5	2º
Industri automatizazio aurreratua	D	4,5	1º
Industria Komunikazioak	D	6	1º
Kontrol aurreratua	D	4,5	2º
Gradu Bukaerako Lana	GBL	12	2º
		<u>KREDITUAK GUZTIRA</u>	
		<u>73,5</u>	

V. MATRIKULA

Oro har, aurreikusi den ikasketa planean, ikasleek denbora osoko dedikazioz egingo dituzte ikasketak eta seihileko nahiz ikasturteetan espero dugun erritmoan egingo dute aurrera, irakasgaiak errepikatu beharreko kasuetan izan ezik; irakasgaiak errepikatu behar izanez gero, arautegi honetako VIII. atalean xedatutakoa kontuan hartuko da. Hala ere, inguruabar pertsonal bereziei erantzuteko, badago matrikula partziala egiteko aukerarik, beti ere ikasleak gutxienez 20 ECTS kreditu hartzen badu eta gai batzuen eta beste batzuen artean aurrez ezarritako eskakizunak errespetatzen badira.

MATRIKULA TASEN ORDAINKETA

Ikasleak matrikula tasak ordainduko ditu matrikulatu deneko kreditu kopuruaren arabera. Tasa horiek eskaintzen zaizkien hiru moduetako batean ordaindu ditzake:

- Matrikularen lehen ordainketa eta, gainerakoa, ordainketa bakarrean.
- Matrikularen lehen ordainketa eta, gainerakoa, hiru zatitan banatuta.
- Matrikularen lehen ordainketa eta, gainerakoa, zortzi zatitan banatuta.

Ikasturtearen prezioa (60 ECTS-en baliokidea) Kontseilu Errektoreak finkatzen du ikasturtearen hasieran. Prezio hau Webean argitaratzen da eta Gradu ikasketaren batetan matrikulatutako ikasleei jakinarazten zaie.

Irakasgai batean bigarren aldiz matrikulatuz gero, kredituaren prezioa %10 gehiago izango da; eta %20 gehiago matrikula hirugarren aldiz edo gehiagotan eginez gero.

Matrikula aldaketak ikasturte bakoitzeko irailaren 30era arte baimenduko dira. Eta kobrantzak erregularizatuko dira

MATRIKULA DEUSEZTATZEA

Kontzeptua

MGEPen matrikula formalizatzen duen ikasleak matrikula deuseztatzea eskatu ahal izango du aurrez dagokion eskaera aurkeztuta, instantzia bidez eta GEPEko Idazkaritzara zuzenduta, beti ere, ikasturte berriko azaroaren 30a baino lehenago aurkeztuz gero.

Matrikularen deuseztatzea ofizioz egingo da formalizatzeko exijitutako eskakizunen bat betetzen ez denean, edo emandako datuak nahiz dokumentazioa faltsututa daudenean.

Ondorioak

Ikasle batek, berak hala nahita, matrikula deuseztatzea eskatzen duenean, edo ofizioz deuseztatzen zaionean, ikaslea ondorio guztiekin utziko dio Eskola honetan matrikulatuta egoteari; beraz, ez zaio Zentro honekiko loturarik justifikatzen duen inolako ziurtagirik emango.

Ikasleari ez zaio deuseztatzeko unera arte ordaindutako matrikularen zenbatekoa inola ere itzuliko, baina ordaintzeko dauden zenbatekoen kobraketa eten egingo da.

VI. IKASLE IZATEARI UZTEA

IKASLE IZATEARI UZTEA, IKASLEAK HALA NAHITA

Ikasleak Zentroko ikasle izateari utzi nahi dionean, Idazkaritza Akademikoari jakinarazi beharko dio.

Ondorioak

Lehen seihileko notak behin-behinekoak izango dira 2021ko urtarrilaren 31 arte. Beraz, data horren aurretik ikasle izateari uzten dioten ikasleei KU (KONBAKATORIA UKATUA) jarriko zaie lehen seihileko ikasgaietan. Berriz, data horretatik urrera uzten badiote ikasle izateari, ikasleek egindako ikasketetan ateratako notak jasoko dira dagozkien ziurtagirietan.

Bigarren seihileko notak behin-behinekoak izango dira 2021ko uztailearen 7 arte. Beraz, data horren aurretik ikasle izateari uzten dioten ikasleei KU (KONBAKATORIA UKATUA) jarriko zaie bigarren seihileko ikasgaietan. Berriz, data horretatik urrera uzten badiote ikasle izateari, ikasleek egindako ikasketetan ateratako notak jasoko dira dagozkien ziurtagirietan.

Idazkaritza Akademikoak (ikasle izateari uzten dioten datatik aurrera) deuseztatu egingo ditu ikasleak ikasturtean erabiltzeko dauzkan deialdiak eta Administrazio Sailari jakinaraziko dio, hurrengo hiletik aurrera ordaintzeko dauden matrikula zenbatekoen kobraketa eteteko.

Ordu arte ordaindutako zenbatekoak ez dira inola ere itzuliko.

IRAUPEN ARAUTEGIA AGORTZEAGATIKO BAJA

Ikasketetan eman daitekeen iraupen denbora agortzeagatik nahitaezko baja kasuetan, Idazkaritza Akademikoak baja hori Administrazioari jakinaraziko dio, hurrengo hiletik aurrera ikasleak ordaintzeko daukan matrikula zenbatekoaren kobraketa eteteko.

Aurreko kasuetan bezala, ordura arte ordaindutako zenbatekoak ez dira inola ere itzuliko.

GEPen BESTE IKASKETA BATZUK EGITEN HASTEKO BAJA ESKARIA

Goi Eskola Politekniko honetan Gradu ikasketa batzuk hasteko Gradu beste ikasketetan baja emateko eskariak arautzeko, eranskin bat egin da, 'Titulua aldatzeko eskaria', araudi hau osatu eta ñabartzen duena (ikusi I. Eranskina).

VII. ELKARBIZITZARAKO JOKABIDEA ARAUAK

1. ASISTENTZIA

MGEP-eko Graduko ikasketak presentzialak dira. Beraz, klaseetara etortzea derrigorrezkoa da. Presentzialtasun hau bi modutara gauzatu daiteke, aurrez aurre (Eskolara bertaratuz) edo, -COVID-ak eraginda-, online eran, dagokionean eskoletara konektatuz. Bigarren honi 'presentzialtasun egokitua' deritzogu.

Erizpide nagusi honi jarraituz, eskoletan erabilitako ikaste metodologia ikasleen presentzialtasunean oinarritzen da. Ikaslea klasera etortzen ez bada, ikaste-irakaste prozesuan definituriko zenbait aktibitateen garapenean parte hartzea galaraztea gerta liteke; eta, ondorioz, ebaluazio jarraia egiteko aukera galdu dezake. Era berean, irakasleek esandako plataforma erabiliz, klaseetara birtualki konektatzea derrigorrezkoa da (COVID pandemiaren erruz horrela erabakiko balitz) eta konexio birtual honetara ez bertaratzeak, irakaskuntza eta ikasgaiak presentzialak diren kasuetan bezalako ondoriok izan ditzake.

Bakartuta edo berrogeialdian dauden ikasleek ere klaseak jarraitu ahalko dituzte.

COVID frogan positibo emateagatik, diagnostikoz isolatuta edo berrogeialdian daudelako MGEPera bertaratu ezin daitezkeen ikasleak presentzialtasun egokituaz baliatuko dira, ahal duten neurrian, klaseak telematikoki jarraitu ahal izateko.

Aukera berdina izango dute beste arrazoi batzuegatik gaixotzen diren ikasleek.

Horretaz gain, zuzeneko saioetan sor litezkeen arazoek ondorioak ekiditze aldera, gorago aipatutako egoeraren baten dauden ikasleei begira eskolak grabatu ahal izango dira. Horrela, konexio arazoak izan dituzten ikasleek edota gaixo dauden ikasleek, konexio berreskuratzean edota osatzean, grabatutako saioa ikusgai izango dute hilabetez⁶ grabaketa egin den datatik aurrera kontatuta.

2. PUNTUALTASUNA

Puntualtasuna modu honetan labur genezake:

- Klasearen hasiera eta bukaera errespetatu.
- Klase-ordurako iritsi ezin ezker edo birtualki konektatu ezin ezker (edo klasetik ordua baino lehen edo konexiotik atera behar izanez gero), errespetuz jokatu: irakasleari zergatiak aurretiaz azaldu eta sartu edo ateratzerakoan edota konexiotik ateratzerakoan enbarazurik ez egin.
- Klasera puntual ez etortzea asistentzia faltatzen hartuko da bai eta ezarritako data eta orduetan ez konektatzea ere (5 minutuko edo gehiagoko puntualtasun ezak ordu beteko faltaren parekoa da).
- Klase-hasieraren ordutik 10 minutura irakasleak etorri gabe jarraituko balu, Zerbitzu Akademikotan abisua eman egoera konpontzen saiatu dadin (delegatua, delegatu ordea edo beste edozein ikasle).

3. HIGIENA, OSASUNA ETA SEGURTASUNA

- Erretzea debekatuta dago, baita eraikinen sarreratan eta eraikinen inguruan ere, lorategian apropos jarrita dauden tokietan izan ezik.
- Segurtasun araei kasu egin eta berauek agintzen dutena bete; eta, eskatzen denean, eraikinak hustu.
- Tailer eta laborategietako praktketan, ikasleek behar diren materialak eraman behar dituzte

⁶ Google-meetek gaur egun jarrita daukan epe muga da. Etorkizunean baldintza aldatuz gero, jakinaraziko da.

(amantalak, segurtasun betaurrekoak...) eta erreminta edo tresnen erabilera-arauak

bete.

Laborategi eta tailerretako praktiketan tresneria eta instalazioak erabiltzen hasi aurretik, bermatu erabilera-arauak ezagutzen direla. Ezagutu ezean, galdetu irakasleari, baina inolaz ere axolagabekeriaz jokatu.

4. ORDENA ETA GARBITASUNA

Ordena eta garbitasunak ikas-irakaskuntza prozesua hobetzen laguntzen dute, eta ondorioz ikasgiroa. Ikasgiro egokia izateko, oinarritzko baldintzak bete beharko liriteke:

- Ikasgela, pasabide eta eskaileratan zakarrak botatzea ekidin.
- Klasean **jatea eta edatea debekatua** dago. Gehienez ere, mahai gainean ur botila bat izatea onartuko da.
- Mahai-aulkiak garbi izatea, margo eta idatzi barik.
- Mahai-aulkien ohizko kokalekua aldatu ezker, betiko moduan utzi berriro.
- Materialetan eta (mahai, aulki, leiho...) kalterik ez eragin; eta, nahi gabe egin ezker, *Konet* aplikazioaren bidez, eraikinen kudeaketa sailera abisua eman, dagozkion xehetasunak azalduz.
- Praktiken kasuan, lan-postuaren ordenaz arduratu eta klasea bukatzerakoan beronen garbitasuna eta txukuntze-lanetan arduraz parte hartu.

5. IKASTE-IRAKASKUNTZA PROZESUAN IZAN BEHARREKO JARRERA ETA PARTEHARTZEA

Ikaslea ikas-irakaskuntza prozesuan modu eraginkorren parte hartzen ahalegindu behar da: edozein zalantza planteatze hutsak hausnarketa bat egin izana eskatzen duenez, norberaren ikaskuntza autonomoan ere eragiten du. Bestalde, 'peer-learning' dela medio (alegia, berdinen arteko ikasketa) elkarren arteko zalantzen planteamendu eta ebazpenaren bitartez, ikasketa sakona bultzatzen da, norbera ezezik, beste ikaskideak ere zalantzen argibideekin aberastuz.

Halere, **klase-ordutik kanpoko atentzioa ere bermatuta dago ondoko bi mekanismoen bitartez:**

-Errefortzu klaseak ikasgai batzuetan. Ikasgai bakoitzak astean 2 orduko saioa izango du, gai kritikoenetan errepaso ariketak egiteko edo gai konkretu batzuen azalpenak errepikatze.

-Irakaslearekin klase orduz kanpoko arreta: aurrez hitzordua hartuta, irakasleak ikasleei arreta emateko prest daude.

Bestalde, ikaste-irakaste prozesuari dagokionez, ondokoak kontutan izan:

- Irakasleak berarekin lan egiteko eskatzen duenean, ariketak ebatzi, problemak etabarretako, norberak bere burua eskaintzea oso aberatsa da norberarentzat eta, oro har, klase osoarentzat: hizkuntza samurtzen da, publiko aurrean hitz egiten irakasten du...
- Garrantzitsua da, oso, irakasleak ariketak, buruketak, eta abar egin eta ebazteko eskaintako denbora aprobetxatzea; bai eta ikasgaien errepasoetan eta buruketen ebazpenetan, irakasleari zalantzak eta galderak egiteko aukera ezin hobeak baitira. Horretarako, kasuan kasuko ikasgaiari arreta eskaini eta ez beste ikasgaiari, eta klasetik kanpoko gaiak beste momentu batzuetarako utzi, adib. kirola, asteburuko joan etorriak... klasearen "haria" ez galtzeko. Bestela, ikasleak bere buruaren kalterako joka dezake, eta ikaskideari ere kalteak sortu.
- Irakasleak publiko aurrean hitz egiten duenean errespetuz arreta jarri (teoria azalpenetan zein galdera zehatzei erantzutean); eta oro har, klase osoan zehar. Klase-aldaketen denbora tartekak dituzte ikasleek iritziak kontrastatu eta aisialdirako. Klaseak modu birtualean ematen direnean norberaren ordenagailuko mikrofonoa isilik eta kamera itzalita izan behar dituzte ikasleek.
- Oro har, telefono mugikor eta portatilen erabilera baimenduta dago. Baina, gerta liteke, momenturen batetan irakasleek hauek erabiltzea galaraztea, egoerak horrela eskatzen duelako. Helburu akademikorik ez duten klase orduetako ekintzetan guztiz debekatuta dago mota honetako gailu elektronikoak erabiltzea baimenduta ez badaude.

-
- Telefono mugikor zein portatilak klaseak grabatu edo irudiak hartzeko erabiltzea debekatua dago, baldin eta aurrez irakasleak horretarako baimen esplizitua eman ez badu.
 - Beste kasu batzuetan ordea, irakasleak berak proposatuko du klase hasieran grabaketa egitea. Erabaki hau irakasle bakoitzaren esku dago; baina grabaketa egitea erabaki ezkeror, grabatzen hasi aurretik jakinaraziko beharko die ikasleei grabaketa egingo dela. Grabaketan parte hartu nahi ez duten ikasleek klase hasieran jakinaraziko dute eta galdera/erantzunen txandari ekin aurretik grabaketa eten egingo da
 - Jokabide pasiboa ekidin: galdera, buruketa eta ariketak konzentrazioz eta astiro- astiro irakurtzea, -zuzenean egitera pasa aurretik-, ezinbestekoa da burutuko direla ziurtatzeko.
 - Praktiketari bereziki, erabilitako tresneria eta ekipoen errendimendua areagotu eta praktikara emaniko denborari etekina ahalik eta handiena ateratzeko, burutu beharreko praktiken enuntziatuak aldeztu aurretik irakurri eta landu behar dira.
 - Egoera berezi edota behar puntualetarako instalazio eta tresnak erabili behar izan ezkeror, baimena eskatu tutoreari. Instalazioak asteburu edo jaiegunean behar izanez gero, ostegun eguardia baino lehen txartelbaimenak@mondragon.edu helbidera idatzi, aldeztu aurretik dagokion baimena tutoreari eskatuz.
 - Klasetara etortzea eta parte hartzea (modu presentzialean zein birtualean), irakasleak egindako lanarekin osatu behar da. Ikasgaiak eguneko egunean landu ezkeror etxean, zalantzak planteatzea eta klasean aktiboa izatea egiten du posible, ezin izaten baita ikasgaiaren ezagutza guztiak azterketa-aurreko azken egunetan asimilatu.

6.ESKOLA EGUTEGIA

Eskola egutegiaren onarpena Kontseilu Errektoreari dagokio, izan ere, Kontseilu Errektoreak zehazten ditu ikasturtea hasteko datak, oporraldiak, jaiegunak eta ikasturte amaiera. Ikasleek jakin dezaten, egutegia GEPeko Intranetean argitaratzen da.

Bertan integratu dira, batetik, seihilekoan zehar lantzeko aurreikustean diren prestakuntza jarduerak, eta bestetik, konpetentzien eskuratzeko prozesuan ikaslearen aurrerapena neurtzeko erabiliko diren ebaluazio mekanismoak. Hori guztia seihilekoaren plangintzan jasota dago, astez aste, eta bertan eskola aldia eta eskolarik gabeko aldia biltzen da. Eskolarik gabeko aldiaren plangintzak dedikazio erreferentzia gisan baliatu behar du irakasleak, baina ez da MGEPen derrigorrez agertu beharreko denboratza jotzen.

Ez da azterketa garai instituzionalizaturik egongo, hau da, MGEPeko Koordinazio Akademikoak ez du halakorik ezarriko; ordea, titulazioaren ardura duen irakasle taldeak planifikatutako kontrolak egingo dira, erabakitzen duen denboran eta moduan, ebaluazioa eta berrikuspen nahiz erreklamazioei (baleude) jarri beharreko arreta barne.

7.ESKOLA ORDUTEGIA

Eskola ordutegia goizeko edo arratsaldeko txandetan banatua dago, ikasketak eta lana osagarri izateko helburuaz. COVID-19 pandemiaren ondorioz ordutegiak eta txandak egokitu behar izan dira MGEPen segurtasun protokoloak bete ahal izateko. Ikasle guztiak jaso dute aldaketa honen berri. Bere konplexutasun eta luzapenagatik ez dira araudi honetan jaso. Kurtso eta talde bakoitzak informazio hau Calendarren kontsultatu ahal izango du.

VIII. IRAKASPENEN EBALUAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA

Ikasleek lortutako ezagutza maila zenbakizko kalifikazioarekin adieraziko dira eta beren espediente akademikoan jasoko dira.

Kalifikazio tarteak

Ikasketa planeko ikasgaietan lortutako emaitzak 0 eta 10 bitarteko zenbakizko eskalaren arabera kalifikatuko dira, zenbaki dezimal batekin. Nota honi kalifikazio kualitatiboa gehitu ahalko zaio.

Gutxiegi: 0 - 4,9

Nahiko: 5,0 - 6,9

Oso ongi: 7,0 - 8,9

Bikain: 9,0 – 10

Ikasketako planeko ikasgaietan Ohorezko Matrikula

Ikasgai baten 9.0 edo 9tik gorako nota lortu ezker, ohorezko matrikula eman ahal izango zaie, dagokion ikasturtean ikasgai berean matrikulatutako ikasle guztien ehuneko bostekoari gehienez.

Ikasgai jakin batean 20 ikasle baino gutxiago baldin badago matrikulatuta, ohorezko matrikula bakarra eman ahal izango da.

Aipamen honetatik kanpo geratuko dira, mugikortasun programetan egindako ikasgaiak, aitortutako ikasgaiak (edozein delarik bere jatorria) eta ikasketa plana aldatzeagatik egokitutakoak.

Espediente akademikoaren batz besteko nota

Espediente akademikoaren batz besteko nota, ondoko formularen bidez kalkulatu da: ikasleak lortutako kreditu guztien batura (horietako bakoitza dagokion kalifikazioaren balioagatik biderkatuz) eta lortutako kreditu guztien batura zatikatuz.

Graduko espedientearen batz bestekoan 9.0 edo 9tik gorako nota lortu ezker, ohorezko matrikula eman ahal izango da. Ikasturte akademiko berdinean titulu bera eskuratutako ikasle guztien ehuneko bostekoari eman ahal izango zaio gehienez. 20 ikasle baino gutxiago badira tituludunak, ohorezko matrikula bakarra eman ahal izango da.

Zenbakizko kalifikaziorik gabeko Kredituak

Ikasketa Planetik kanpo egindako formazio osagarriarengatik aitortutako kredituek ez dute zenbakizko baliorik izango. Horren ondorioz ez dira kontutan hartzen espedientearen akademikoaren batz besteko nota kalkulatzeko.

EBALUAZIO SISTEMA

Kontzeptu orokorrak

Ebaluazioa eta erreuperazioa jarraituak izango dira **ikasturte osoan** zehar:

‘Kontrol puntu’ esaten dugunean, kalifikatzen den edozein jarduera (lan, praktika, ahozko nahiz idatzizko azterketa etab.) dela ulertzen da, aipatutako kalifikazioari konpetentziaren azken notarekiko portzentaje jakin bat dagokionean.

Gainera, adierazi beharko zaie kontrol puntu bakoitzaren xedea zein den, emaitza nola eta noiz jakinaraziko zaien eta baita kasu bakoitzerako planteatzen diren errekupeazio proposamenak zeintzuk diren ere. Halaber, kontrol puntu bakoitzak hartzen duen kalifikazio-portzentajearen berri emango zaie, sei hileko edo ikasturteko behin betiko kalifikazioarekiko.

Ikasle bat gaixorik jartzen bada edo egoera jakin batengatik kontrol puntura joaterik ez badauka, ez zaio errepikatuko. Baja justifikatzen ez bada, kontrol puntua 0 batekin kalifikatuko da eta ikaslea errekupeaziora aurkeztu beharko da. Aparteko kasuetan eta absentsia egoki justifikatzen bada (egiaztagiri medikoaren bidez, senide baten heriotza egiaztagiriaren bidez, etab...), egingo duen errekupeazioa egin gabe zuen kontrol puntutzat hartu ahal izango da. Gainditzen ez badu, irakasle taldeak erabakiko du ea errekupeaziora aurkezten uzten zaion.

Egiten ez duena kontrol puntuaren errekupeazioa baldin bada, aparteko kasuetan eta egoki justifikatzen badu, irakasle taldeak erabakiko du ea aparteko errekupeazio bat egiten uzten zaion. Justifikatzen ez badu, berriz, 0 puntuko kalifikazioa jarriko zaio errekupeazioan.

Aurreko paragrafoan jasotakoa aintzat hartuta ere, MGEPeko Koordinazio Orokorreko taldeak edozein kontrol puntu errepikatzea edo atzeratzea erabaki dezake bere eskumenetik kanpoko arrazoiengatik, ikasle portzentaje handi bati ikastetxera etortzea galarazten dion ezinbesteko egoeraren bat suertatzen denean.

Ebaluazio jardueri buruzko jarraibeak

- Kontrol puntuak online eran ere egin ahal izango dira kasu jakin batzuetan: COVID frogan positibo emateagatik, diagnostikoz isolatuta edo berrogeialdian daudelako MGEPera bertaratu ezin daitezkeen ikasleei kontrol puntuak online eran egitea ahalbidetuko zaie gainontzeko ikasleekin batera. Horretarako kontrol puntua izango den egunaren bezperan, arratsaldeko 17:00ak baino lehen, kasuan kasuko irakasleari jakinarazi beharko diote azterketa (edo kasuan kasuko proba) egingo duten ala ez. Kontrol puntua egin ezina adierazi duen ikaslearen ardura izango da urtarilaren 31 aurretik (lehen sei hilekoan) eta ekainaren 18a aurretik (bigarren sei hilekoan) dagokion egiaztagiria aurkeztea irakasleari edo sei hileko koordinatzaileari.

Kontrol puntuaren emaitza ez da aintzat hartuko, ez eta bistaratuko ere, gorago aipatutako egiaztagiria aurkeztu arte.

Gorago aipatutako egoeraren baten egonik jakinerazpena bidaltzen ez duen kasuetan, ikaslea gaixorik dagoela ulertuko da (alegia, azterketa egin ezinik). Beraz, zuzenean errekupeaketako azterketara aurkeztu beharko da.

- Errekupeaketa denak online eran edo presentzialki egin ahalko dira, goizeko 8:00ak eta arratsaldeko 18:30ak artean.
- Ikasleren bat bakartuta edo berrogeialdian badago, kontrol puntua on line eran egin ahalko du, gorago aipatutako prozesua jarraituz (aldeztatik aurretik jakinarazi eta, egiaztagiria aurkeztu).
- Ebaluazio jardueretan ikasleak zintotasunez jotako du, kontrol puntuetan (azterketak zein lanak edo txostenak) iruzurrik egin gabe.
- Kontrol puntuetan irakasleak baimendutako baliabideak solik erabili ahalko ditu ikasleak.

VIII. Irakaspenen ebaluazioa

Baimendu gabeko materiala iruzurrezko materiala izango da. Ondorioz, kontrol puntu baten berau darabilen ikaslea azterketatik kanporatu ahal izango du irakasleak, kopiaketari dagozkion ondorio bereberekin; eta irakasleak iruzurrezko materiala aldi baterako atxiki ahalko du iruzurraren ebidentzia gisa.

- Beharrezkotzat jotzen dituen baliabide teknologikoak jarri ahalko ditu MGEPEk kontrol puntuetan iruzurrik ez dagoela bermatzeko. Zentzu honetan, lan bat entregatzerakoan ikasleak inplizituki aditzera ematen du badakiela MGEPE-en eskumena dela baliabide horiek erabiltzea iruzurrik ez dela egon bermatzeko

Kontrol-punturen batean edozein motatako iruzurra eginez gero, edo, lanen baten edo memoria batean plagioa egiten bada, delako ariketa, lana edo kontrol puntua, -edo kasuan kasukoa-, «Suspentso» bezala kalifikatuko da, iruzurrean eroritakoari egotzi ahal izan zaion erantzukizunaz gain. Horretaz gain, Graduako ikasleen kasuan txartel horia (edo gorria) atera ahalko zaio, honek dakartzan ondorioekin.

- Ebaluazio jardueran bat zuzentzerakoan irakasleak ikasleek iruzurren bat egin duenaren susmo sendoak baditu, ebaluazioa jarduera errepikatzeko eskatu edota «Suspentso» bezala kalifikatu bere ondorio guztiekin, bien artean erabaki ahalko du.
- Aparteko zigorrak jasan ahalko dituzte bere gain, birritan iruzur egiten dutenek edo egindako iruzurrean egoera larriak antzeman badira.

Ikasleen jarraipen eta aurrerapena

Seihileko bakoitzean zehar eta seihileko bakoitzaren buruan, jarraipen tutoretzen bidez, ikasleak ikasturteko helburuen lorpenean norainoko aurrerapena egin duen informatuko da. Lehen ikasturtean gutxienez seihilekoko 3 jarraipen tutoretza egingo dira, eta bigarrenean eta ondorengoko ikasmailetan, bi; irakasle taldeak egitea komenigarritzat jotzen dituen beste jarraipen tutoretza gehigarri batzuk alde batera utzirik. Horietan, honi buruzko informazioa emango da:

a) Konpetentzien lorpenean ikasleek egindako aurrerapena (informazio kualitatibo eta kuantitatiboa). Informazio kualitatiboa koloretako kode batekin erakutsiko da: berdea, horia eta gorria, honako balio hauekin: berdea, 5,5tik 10era; horia, 4,5tik 5,4ra eta gorria, 0tik 4,4ra.

b) Ikasleak eskoletan daukan jarrera eta parte hartzea, koloretako txartel sisteman batekin (berdea, horia eta gorria). Berde koloreak adieraziko du eskoletan ikaslearen jarrera eta parte hartzea egokiak direla; horiak, berriz, adieraziko du ikaslearen portaera desegokia dela baina ebaluazioan zehar zuzentzeko aukera izango duela, arrazoietako bat tarteko:

- eskoletara etortzen ez delako
- eskoletako jardueretan parte hartzen ez duelako: ez ditu ariketak egiten; talde lanean jarrera desegokia du; ez du seihileko proiektuan parte hartzen
- ez dituelako eskatutako lanak edo txostenak entregatzen.

Egoera horren aurrean, irakasleek ikaslea ohartaraziko dute bere portaera desegokiaz, jarrera eta eskoletan partehartzea hobetu behar duela jakinarazteko. Baina irakasle taldeak hobekuntza hori nabaritzen ez badu, txartela gorria erakutsiko zaio. Egoera horretan, irakasle taldeak erabakiko du ea kontrol puntuak edo seihileko proiektua ere egiten uzten zaion. Kasu horretan ez da egokia ebaluazio prozesuan konpetentzien konpentsazio sistema aplikatzea.

VIII. Irakaspenen ebaluazioa

c) Lehenengo seihilekoa txartel gorri amaitzen duten ikasleek aukera izango dute bigarren seihilekoan txartel horiarekin edo baita berdearekin ere baloratuak izateko, jarrera zuzendu eta landutako jardueretan beren parte hartzea hobetzen badute. Bigarren seihilekoan portaera desegokia izaten jarraitzen duten ikasleek 'NP' kalifikazioa izango dute seihileko-ikasturteko konpetentzietan.

Seihileko koordinatzaileak tutoretza bilera datak aurrez mango dizkie ikasleei, edonola ere gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin.

Ikasturte bakoitzaren **bigarren seihilekoaren amaieran**, ebaluazio global bat egingo da, non kontuan hartuko den ikasleek seihilekoko (otsailean) eta ikasturteko (uztailean) konpetentzietan eskuratutako balorazioen multzoa. Ildo horretan, lehen seihilekoko emaitza akademikoak behin-behinekoak izango dira uztaileko ikasturte bukaerako ebaluazio globala egin arte.

Adierazi dugunez, kontrol puntu bakoitzean bilduko dira kontrol puntu horrekin gainditu gabeko ikaskuntza emaitzak gainditzeko kasu bakoitzean planteatzen diren errekupeziarako proposamenak eta mekanismoak, eta errekupeziario bat egongo da gutxienez ikaskuntza emaitza bakoitzeko. Ikaste emaitza bat ehuneko ehunean Seihileko Proiektuarekin ebaluatzen den kasuetan, delako ikaste emaitza hori suspendituz gero, errekupeziarioa aukerarik ez da egongo. Kontrol puntu bat (dela azterketa, dela lana, dela beste edozein) gainditzen ez bada, dagokion errekupeziarioa egin behar da derrigor, hala planteatu bada.

Ebaluazioak zehaztuko du ea ikasleak seihileko eta ikasturte bakoitzerako ezarritako **konpetentziak eskuratu dituen** ala ez. Idazkaritza Birtualeko aplikagarrian, 'ikus notak' aukeran, azaltzen dira titulu bakoitzerako identifikatutako konpetentziak eta konpetentzia horiek eskuratu direla bermatzeko gainditu beharreko ikaskuntza emaitzak; baita ikaskuntza emaitza bakoitzak duen garrantzi erlatiboa ere, konpetentzian izandako notarekiko.

Konpetentzia bat gainditzeko baldintzak.- Konpetentzia bat gainditzeko, 5 edo 5etik gorako kalifikazioa lortu behar da. Konpetentziak osorik gainditu edo suspenditzen dira; beraz, ezingo da konpetentzia-zatiak gainditu, ez eta gainditutako ikaskuntza emaitzen notak ikasturte batetik bestera gorde, berauekin ez badu konpetentzia osoa gainditu.

Errendimendu akademikoaren ebaluazio globalean irakasleek arautegi honetan jasotzen ez diren kasuetarako egokien iruditzen zaizkien erabakiak hartu ahal izango dituzte errendimenduaren, jarreraren eta ikaslearekin egindako jarraipen bileretan ikusitako eboluzioaren arabera.

1., 2. eta 3. Mailako ebaluazioa

Ikasturtea gainditzeko baldintzak.- **Ikasturtea gainditzeko** ikasleari **ikasturteko konpetentzia guztiak gainditzea** exijitzen zaio, bai ≥ 5 puntuko **kalifikazioa lortu** duelako konpetentzia guztietan, bai **konpentsazio** bidez gainditu dituelako.

Konpetentzien %100 gainditzen ez badira, baina aurrerago zehaztutako baldintzak betetzen badira, konpentsatzeko mekanismo bat aplikatu ahal izango da.

Konpentsaziotzat **ebaluazio globala edo multzoaren ebaluazioa** egiteko mekanismoa jotzen da, zeinaren bitartez ikasleari banan-banan hartuta gaindituko ez zituen konpetentziak **gaindituzat jotzen zaizkion, ondorio guztietarako.**

Konpentsazioa aplikatzeko ikasleak **ondorengo lau baldintza hauek** bete behar ditu:

VIII. Irakaspenen ebaluazioa

1.- Jarduera akademikoetan jarrera eta parte hartze egoki bat erakustea (jarrera txartela eta eboluzio BERDEA).

2.- Tituluko konpetentzia guztietan gutxienez 10 puntutik 3 puntuko nota lortzea.

3.- Beharrezko konpetentzien kopurua gainditzea, horiek ECTSetan duten pisuaren batura matrikulatuta dagoen ikasmaila zehatzeko ⁷ ECTS guztien %70 edo gehiago izan dadin. Ikasmaila baten baino gehiago badago matrikulatuta, adibidez 2. eta 1. mailan, ikasleak baldintza hau bete beharko du bai 2. mailan eta bai 1. mailan ere.

4.- Kurtsoan batez besteko 10 puntutik **>= 5,25** puntuko nota haztatua lortzea.

Batez besteko nota haztatua honela kalkulatu da: aurten edo aurreko urteetan ikasleak egindako kredituen batura (edo aitortutakoak⁸) bakoitza dagokion kalifikazioen balioarekin biderkatuz eta kurtsoko kreditu guztiengatik zatituz.

Aurreko ikasmaitako ikasgaiekin ikasmaitaz pasatzea

Lehen mailako ikasleek bigarren mailara pasatu ahalko dute, baldin eta lehen maila erabat gainditua badute, edo gainditu gabe izanik, gehienez ere 12 ECTS badute gainditzeke

Bigarren mailako ikasleak hirugarren mailara pasatu ahalko dira, baldin eta bigarren maila erabat gainditua badute, edo gainditu gabe izanik, gehienez ere 12 ECTS badute gainditzeke. Ezingo dute eskubide horretaz gozatu Ingeniaritza Meatronikoko Graduko 2. kurtsoko ikasleek. Hauei 3. kurtsoan matrikulatzeko 2. kurtsoa osorik gaindituta edukitzea exijituko zaie.

Lehen maila erabat gainditu gabe izanik ezingo da hirugarren mailara pasatu; nahiz eta gainditzeke utzitako ECTS kopurua 12 edo txikiagoa izan.

Laugarren mailara pasatzeko, berriz, bigarren eta hirugarren mailak erabat gaindituta izan beharko dituzte ikasleek. Alegia, ikasleak ezingo dira laugarren mailara pasatu aurreko ikasmaitako ikasgai gainditu gabeekin.

Mailaz pasatzeko zehaztutako gutxieneoak gainditzeko ez dituen ikasleak, errepikatu egin beharko du **gainditu ez dituen konpetentziak** gainditzeko. Kasu honetan,

◦ Ikasgaiak kalifikatzeko ikasgai bakoitzari lotuta dauden konpetentzietan lortutako batez besteko nota haztatua erabiliko da; baina, ikasgaiaren batean ikasleak ez badu konpetentziaren bat gainditu, ikasgai horrek gehienez 4,5 puntuko kalifikazioa lortuko du.

◦ Kurtsoa errepikatzen duen ikasleak matrikula ikasgaika egingo du, baina gainditu gabeko konpetentzietan dagokien % ordainduko du.

◦ 12 ECTS errepikatzen dituzten ikasleak (kurtso errepikatzaileak izan edo maila beheagoko kurtsoan ikasgaiak gainditu gabe edukita goragoko kurtso batera igaro dutenak izan) gehienez 12 ECTS egiten ari badira seihilekoko, ez dute seihileko proiektua egingo, baina bai, ordea, gainditu gabeko ikasgaiaren lan bat. Eta seihilekoko 12 ECTS baino gehiago errepikatzen ari direlako seihileko proiektua egin behar duten ikasleak badira, errepikatzen dituzten konpetentzietan lotura duen seihileko proiektuaren zatia baino ez zaie ebaluatuko.

⁷ Jarduera estraakademikoengatik, lan esperientziagatik edo unibertsitate titulu propioetan prestakuntza jasotzeagatik aitortutako kredituena izan ezik.

⁸

◇ **Maila bat gehienez 3 aldiz egiteko eskubidea izango du: lehenengo aldia ikasle berri gisa, eta beste bi aldi gehiago, errepikatzaile gisa.**

Deialdi Gehigarria

◇ Ikasleak ikasmila bat gainditzeko aukera guztiak agortu ondoren oraindik ere ez badu gainditu, eta ondoko taulan zehazten diren egoeraren batetan badago, deialdi gehigarri baterako eskubidea izango du, uztailean gauzatuko dena.

Ondoko taula ulertzeko argibideak:

- 'NUEV ikaslea' da kasuan kasuko ikasmila lehen aldiz egiten duena.
- 'RE1 ikaslea' da kasuan kasuko ikasmila lehen aldiz errepikatzen duena.
- 'RE2 ikaslea' da kasuan kasuko ikasmila bigarren aldiz errepikatzen duena
- '0 < X ≤ 6 ECTS', Non 'X' suspenditutako ECTS kopurua den.

Zbki a.	Egoera akademikoa	Ikasturte amaierako emaitza akademikoak	Deialdi gehigarriak o gehienezko ECTSak
1	Kasua: RE2 ikaslea 1. mailan	Lehen maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
2	Kasua: NUEV ikaslea 1. mailan ⁹	Lehen maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
3	Kasua: RE1 ikaslea 1. mailan ¹⁰	Lehen maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
4	Kasua: RE2 ikaslea 2. mailan	Bigarren maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
5	Kasua: RE2 ikaslea 3. mailan	Hirugarren maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
6	Kasua: RE2 ikaslea 4. mailan	Laugarren maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
7	Kasua: NUEV ikaslea 2. mailan eta RE1 1. mailan.	Bigarren maila: suspenditutako ECTS kop. \square 0 ECTS; Lehen maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
8	Kasua: RE1 ikaslea 2. mailan eta RE2 1. mailan	Bigarren maila: suspenditutako ECTS kop. \square 0 ECTS Lehen maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
9	Kasua: RE1 ikaslea 2. mailan eta RE2 1. mailan	Bigarren maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 12$ Lehen maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS (1. mailako ikasgaia)
10	Kasua: NUEV ikaslea 3. mailan	Hirugarren maila: suspenditutako ECTS kop. \square $0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS

⁹ Mekanikako Ingeniaritza Graduko ikasleentzat propio, alde aurretik Goi Mailako Heziketa Zikloa egina badute eta Heziketa Ziklo horrek eman badie sarbidea Graduko ikasketetan.

¹⁰ Ikusi aurreko oharra

VIII. Irakaspenen ebaluazioa

11	Kasua: NUEV ikaslea 3. mailan eta RE1 2. mailan	Hirugarren maila: suspenditutako ECTS kop. ≥ 0 ECTS Bigarren maila: suspenditutako ECTS kop. $\geq 0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
12	Kasua: RE1 ikaslea 3. mailan eta RE2 2. mailan	Hirugarren maila: suspenditutako ECTS kop. ≥ 0 ECTS Bigarren maila: suspenditutako ECTS kop. $\geq 0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS
13	Kasua: RE1 ikaslea 3. mailan eta RE2 2. mailan	Hirugarren maila: suspenditutako ECTS kop. $\geq 0 < X \leq 6$ ECTS Bigarren maila: suspenditutako ECTS kop. $\geq 0 < X \leq 6$ ECTS	$0 < X \leq 6$ ECTS (2. mailako ikasgaia)

Ez-ohiko deialdiaren eskaera eta prozesua:

- 1.- Uztailaren 12ra arteko epea (12a barne) dute egoera hautakoren batetan dauden ikasleek deialdi gehigarria eskatzeko.
- 2.- Deialdi gehigarriaren azterketa prestatzeko 7 eguneko epealdia bermatuko zaie aukera honetaz baliatzeko eskaera egiten duten ikasleei.
- 3.- Eskaera ibenito@mondragon.edu helbidera zuzendu beharko du eskatzaileak, protokolo honi atxekitako eranskinean jasotako eskaera-orria beteaz.
- 4.- Epea amaitutakoan, Zerbitzu Akademikoetatik ikasgai bakoitzean jasotako eskaeren zerrenda bidaliko zaio kasuan kasuko ikasgaiaren irakasleari.
- 5.- Irakasle bakoitzaren ardura izango da azterketa eguna finkatzea eta ikasleei jakinaraztea. Edonola ere, azterketa eguna uztailak 21 aurretik izan beharko da.
- 6.- Irakasleek uztailak 23 baino lehen notak ordenagailuan sartu beharko dituzte.
- 7.- Titulu-taldeek dagokion ebaluazio-saioa egingo dute deialdi gehigarria egin duten ikasleen emaitza akademikoei behin betikotasuna emateko.
- 8.- Deialdi gehigarria eskatu eta zertzeko prozesu osoa uztailaren 27rako amaituta egon beharko da.
- 9.- Deialdi honetan gehienez 5 puntu atera ahal izango dira.

Graduko 4. Mailako ebaluazioa

Lehen, bigarren eta hirugarren mailetan bezala, Graduko 4. Mailako ebaluazioa globala da, baina azalpen berezia behar du ikasmila honek dituen ezaugarri bereziengatik.

Ikasmilak bi zati desberdin ditu: lehenengo zati bat non ikasleek ikasgaiekin lotutako kompetentziak landu eta bereganatuko dituzten (**15 edo 18 ECTS tituluaren arabera**); eta bigarrena, non ikasle bakoitzak **berak garatuko dituen Praktikak eta Gradu Bukaerako Lanarekin (GBL) lotutako kompetentziak landuko dituen (45 edo 42 ECTS hurrenez hurren)**.

Ikasturtean zehar, ebaluaziorako eta jarraipenerako tresna nagusia tutoretza izango da, 'kontzeptu orokorrak' atalean definitutako moduan.

Lehen seihilekoaren amaieran kurtso amaierako ebaluazio globala egingo da, ikasleak GBLa aurkeztu eta defendatu ahal izango duen ala ez erabakitzeko. Horretarako ikasleari ikasgaiekin lotuta dauden **15 ECTSei edo 18 ECTSei dagozkien kompetentzia guztiak gainditzea** exijitzen zaio, bai ≥ 5 puntuko **kalifikazioa lortu** duelako kompetentzia guztietan, bai **konpentsazio** bidez gainditu dituelako. Konpentsazioa honetan ez dira kontuan hartzen ikasleak aurreko ikasturteren baten TFG eta praktketan ateratako balizko kalifikazioak.

Kompetentzien %100 gainditzin ez bada, gorago zehaztutako konpentsatzeko mekanismoa aplikatu ahal izango da, baldin eta konpentsatzeko exijitzen diren baldintzak betetzen badira.

Ebaluazioaren ondorioz, ikasleak GBLa aurkeztu dezakeela erabakiz gero, beronen aurkezpenean eta defentsan ≥ 5 puntu lortu beharko ditu 4. maila gainditzeko.

VIII. Irakaspenen ebaluazioa

Ebaluazioaren ondorioz GBLa ezin duela aurkeztu erabakitzen bada, GBLaren memoria eta dokumentazio gehigarria entregatu ahal izango ditu, baina GBLaren aurkezpena hurrengo ikasturtera atzeratuko da. Modu honetan entregatutako GBLa gehienez 3 urte egon ahal izango da egoera honetan. Hurrengo ikasturteetan ikaslea ikasgaietan matrikulatu beharko da eta dagozkien konpetentziak gainditu beharko ditu, baina GBLaren matrikula egin beharrik ez du izango.

Ebaluazioaren ondorioz, GBLa ezin duela aurkeztu erabakitzen bada, hurrengo ikasturtean ikaslea GBLaren matrikula gehi ikasgaiena egin beharko du.

Oharra: GBLaren ebaluazio sistema espezifikoa 'GBLaren Ebaluazio 'Sistema' deritzon dokumentuan jaso da.

IX. GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILE GISA EDO ERRENDIMENDU ETA MAILA HANDIKO KIROLARI GISA EGIAZTATUTAKO IKASLEEN ESKUBIDEAK

GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEAK 203/2010 DEKRETUAREN ARABERA EDO TA 971/2007 ERREGE DEKRETUAREN ARABERA

1.- Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritakoaren arabera, goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa egiaztatuta dauden ikasleek eta Goi Mailako eta, Errendimendu Handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, Goi Mailako edo Errendimendu Handiko kirolari gisa egiaztatuta dauden ikasleek, honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Eskoletara ez joatea derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte, lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.

b) Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.

c) Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lantaldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.

d) 4. kurtsoan, aztertu ea ikasleak aukerarik duen praktikak eta GBLa lanaldi erdiko dedikazioaren egiteko, lanaldi osoan egin ordez. Kasu horretan bermatu egin beharko da eskatzen diren ECTSak osatuko dituela, nahiz eta horretarako praktikak eta GBLa ikasturte bat baino gehiago luzatu behar izan.

e) Eskubide hauek balioesteko ikasleek Goi kirolari, teknikari eta epaile gisa egiaztatuta daudela frogatu beharko dute, indarrean dagoen kasuan kasuko legediak ezarritako egiaztagiria aurkeztuz.

f) Arestian **zerrendatutako** egokitzapen guzti horiek gorabehera, ebaluazio proben edukia (lanak eta kontrol puntuak) ez da aldatuko.

KIROL JARDUERA INTENTSUA EGITEAGATIK AURREKOEKIN PAREKAGARRI DIREN KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEAK

2.- Ondoren aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten kirolariak, teknikariak eta epaileak errendimendu eta maila handiko kirolarientzat ezarritako eskubideetako batzuez baliatu daitezke.

IX.IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK

3.- Ondorio horietarako, kirol jardueratzat hartuko dira Euskal Herriko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 DEKRETUAK 47. Artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztenak. Hauek dira baldintza horiek:

- Lehia izaera nabarmena.
- Lehiatzeko arauak izatea.
- Autonomia erkidegoan oso zabalduta egotea.
- Kirol errendimendua optimizatzeko, entrenamendu sistematiko eta jarraitua beharrezkoa izatea.
- Ahalegin fisikoa edo mugimendu konplexuak egitea beharrezkoa duen ekintzari loturik egotea.
- Jarduera gizakiek zuzenean egin behar izatea.
- Animaliarik egonez gero, gizakien jarduera, heziera bera kontuan hartu gabe, beharrezkoa eta garrantzitsua izatea.
- Kirol modalitatea nazioartean onartua egotea, bertako kirolen kasuan izan ezik.

4.- Honako hauek ez dira kirol modalitatetzat joko: zorizko jokoetan oinarrituriko jarduerak; jatorriz lehiari oinarritzen ez diren jokoak; estrategia jokoak edo eskuen edo buruaren trebetasun hutsean oinarritzen diren jokoak; edo, berez, egoneko jokoak direnak.

5.- Era berean, ez dira kirol modalitatetzat onartuko aurretik onartuta zegoen beste kirol modalitate edo diziplina batekin bat-etortze nabariak dituzten jarduerak.

6.- Irizpide horiei kasu eginda, eskubide horien aitortpenerako, erreferentziatzen hartuko da goian aipatutako 16/2006 DEKRETUAK, urtarrilaren 31koak, bere 1 Eranskinean ezarritako kirol eta diziplinen katalogoa.

7.- Errendimendu eta maila handiko kirolari, teknikari eta epaileekin parekagarritzat joko dira baldintza hauetako bat egiaztatzen duten ikasleak:

7.1. Kirol klub batekin kontratu harremana duen kirol profesionala izatea, kirol jarduera ikaslearen bizibide nagusia izanda.

7.2. Selektzio autonomiko batean edo selektzio nazionalean parte hartzeko aukeratua izana.

7.3. Lurraldeko federazio bateko lizentzia/fitxa edukitzea, non eskatzaileak berariaz adierazi beharko baitu bere kiroleko, diziplinako eta kategoriako mailarik altueneko liga ofizialean lehiatzen dela.

Kasu horietan, maila handiko kirolari, teknikari eta epaileei edo errendimendu eta maila handiko kirolariei aurreko ataletan aitortzen zaizkien eskubideez baliatu ahal izango da ikaslea.

7.4. Halere, egoera horiei arreta egiteak ez du ekarriko inola ere ebaluazio proben edukia aldatzea (lanak eta kontrol puntuak).

8.- Kasu batzuetan, a) eta c) eskubide horiez berez baliatu ahal izango dira errendimendu edo maila handikoa izan ez arren –ez eta horiekin parekagarriak izan gabe ere– inguruabar jakin batzuegatik lehiaketa batean parte hartzeko edo epaile lanak egiteko beren bizilekutik 200 metro baino gehiagora bidaiatu behar duten kirolariak, teknikariak eta epaileak.

PROZEDURA

Aurretik jasotako eskubideak eskuratzeko interesdunak prozedura hau egin behar du:

IX.IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK

A.- PROZEDURAREN HASIERA

1.- Interesdunak abiaraziko du prozedura, aurretik aipatutako kolektiboetako bateko kide izanik II. eranskinean jasotako eskabidea beteta.

B. DOKUMENTAZIOA

1.- Lehen aipatutako arauen arabera (uztailaren 20ko 203/2010 Dekretua edo uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretua) Maila edo Errendimendu Handiko kirolari, teknikari edo epaileen baldintzak betetzen dituztela egiaztatu dezaketen kirolarien kasuan, dagokien egiaztagiria aurkeztu beharko dute, horretarako ahalmena duen Organismo Ofizialak emanda.

2.- Maila edo Errendimendu Handiko kirolari, teknikari edo epaileekin parekagarri diren kirolarien kasuan, kirol profesionalak badira, klubaren eta kirolariaren arteko kontratua atxiki beharko dute.

3.- Maila edo Errendimendu Handiko kirolari, teknikari edo epaileekin parekagarri diren kirolarien kasuan, kirolari afizionatuak badira, hauxe da beti atxiki beharko duten dokumentazioa:

a) dagokion federazioak edo selekzioak (kasuan kasuan) lizentzia/fitxa, edo biek, egindakoa.

b) Klubeko ordezkari kualifikatu batek egindako egiaztagiria, non, besteak beste, ikaslearen kirol jarduerari eskaintzen dion denboraren intentsitatea adierazi beharko den.

Halere, dokumentazioa berrikusteko prozesuan MGEPEko Koordinazio Akademikoko Taldeak informazio gehigarria eskatu ahal izango du ebazpena emateko garrantzitsutzat jotzen dituen gaiak argitzeko.

3.- 8. Atalean aipatzen diren kirolariek, teknikariek eta epaileek atxiki behar duten dokumentazio espezifiko gehigarria: berak parte hartzen duen lehiaketa ofizialen egutegia, edo horren ordezkari egiaztagiri bat, bere federazioak emanda, betiere dokumentu batean edo bestean adierazten bada lehiaketa non egingo den.

C. AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazioa matrikula formalizatzen den unean bertan aurkeztu beharko dute (baldin eta lizentzian/fitxan matrikulatzen den kurtso berria sartzen bada) edo, beti, ikasturtearen irailaren 15a baino lehen. Bigarren kasu horretan matrikula tituluaren koordinatzaileari helarazi beharko zaio, eta hark MGEPEko Zerbitzu Akademikoen Departamentuan entregatuko du.

8. atalean aipatzen diren kirolari, teknikari eta epaileen kasuan, lehiaketan egutegiari buruzko dokumentazioa eguneratu ahal izango dute, baldin eta ezinbestean aldatu bada kirol ikasturtean. Halere, erabaki egokia hartzeko, epea malgutzea lortu nahi den mugarria baino lehen entregatu beharko du (kontrol puntua, feedbacka...)

D. ESKAERAREN EBAZPENA

MGEPEko Koordinazio Akademikoko Taldeari dagokio ezarritako moduan eta epean jasotako eskaerak ebaztea.

Koordinazio Akademikoko Taldeari dagokio informazio gehigarria eskatzeko ahalmena, baldin eta aurkeztutako informazioa nahikoa ez bada edo eskaera behar bezala justifikatzen ez badu.

Ebazpena jakinaraztean ALDEKOA edo KONTRAKOA den esango da. Lehen kasuan, aitortutako eskubideen irismena ere adierazi beharko da. Horretarako, II. eranskinean jasotako dokumentua erabiliko da.

**IX.IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO
ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN
DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK**

E. AITORTUTAKO ESKUBIDEAK ERABILTZEA

Koordinazio Akademikoko Taldeak emandako ebazpena abiapuntu hartuta, titulu taldeko irakasle batzuek eta eskatzaileak zehaztuko dute zertan gauzatuko den ikasleari kasu bakoitzean aitortu zaion eskubidea.

**F. MAILA EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILEEN IZAERA INDARREAN
EGOTEKO BALDINTZA**

Araudiaren kapitulu honetan jasotako eskubideez baliatu ahal izateko, maila edo errendimendu handiko kirolari, teknikari eta epaile izaera aitortzen zaien kirolariek aurkezten duten egiaztagiria indarrean egon beharko da irailaren 15ean.

**G. MAILA EDO ERRENDIMENDU HANDIKO EKIN PAREKAGARRIA DEN KIROLARI, TEKNIKARI ETA
EPAILEAREN IZAERAREN URTEKO EGUNERAKETA**

Araudiaren kapitulu honetan maila edo errendimendu handiko kirolari, teknikari eta epaileekin parekagarri dienei aitortutako eskubide berberak aitortzea nahi duen ikasleek prozedura hau errepikatu beharko dute matrikulatzen diren kurtso bakoitzean.

X. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK.

1.- Irakaskuntza, kultur, arte, ongintza eta laguntza izaerako elkarteetan eta antzekoetan dedikazio handiz parte hartzen dutela egiaztatzen duten ikasleak atal honetan adieraziko diren eskubideez baliatu ahal izango dira.

2.- Aurreko puntuan aipatzen diren elkarteak oinarri pertsonalista duten eta irabazi asmorik ez duten erakunde pribatuak izan behar dira, xede partikularrak edo orokorrak lortzeko antolatutako eta inongo berariazko elkarte araubideren menpe ez daudenak¹¹.

3.- Eremu horretatik kanpo geratzen dira alderdi politikoak, sindikatuak enpresa erakundeak eta elkarte profesionalak, elizak, sinesteak eta erlijio komunitateak, kirol klub eta federazioak merkataritza, industria eta nabigazio ganberak, zuzenbide publikoko korporazioak, ondasun erkidegoak eta jabeen erkidegoak, kooperatibak, aldi baterako enpresa elkarteak, interes ekonomikoko elkarteak, merkataritza sozietate edo sozietate zibil gisa eraturako elkarteak, eta, orokorrean, elkartekideen artean banatzeko asmoz irabazi ekonomikoak lortzea helburu duten guztiak.

4.- Hala dela jotzeko, kasuan kasuko elkarteak Euskal Herriko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta egon beharko da.

5.- Hauek dira ikasle horiek edukiko dituzten eskubideak:

a)Txanda, ordutegia, taldea edo tutoretza aukeratzea edo aldatzea, ikasketak entrenamenduen ordutegiekin, lehiaketa ofizialen parte-hartzeekin eta ohiko egoitzatik kanpo egindako egonaldiak bateragarriak izango direla bermatzeko.

b) Eskoletara ez joatea derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte, lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.

Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.

d) Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lantaldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.

¹¹ 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa

X. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK

e) 4. kurtsoan, aztertu ea ikasleak aukerarik duen praktikak eta GBLa lanaldi erdiko dedikazioaren egiteko, lanaldi osoan egin orde. Kasu horretan bermatu egin beharko da eskatzen diren ECTSak osatuko dituela, nahiz eta horretarako praktikak eta GBLa ikasturte bat baino gehiago luzatu behar izan.

f) Eskubide horiek eskuratzeko ikasleek beren jarduera egiaztatu beharko dute modu frogagarrian.

PROZEDURA

Aurretik jasotako eskubideak eskuratzeko interesdunak prozedura hau egin behar du:

A.- PROZEDURAREN HASIERA

1.- Interesdunak abiaraziko du prozedura, aurretik tipifikatutako elkarte batean dedikazio handiz parte hartzen duen pertsonatzat jota III. eranskinean jasotako eskabidea beteko baitu.

B. DOKUMENTAZIOA

1.- Elkartearen erregistroko izen ematearen kopia bat edo, bestela, elkartearen lehendakariak emandako egiaztagiri bat, non erregistro zenbakia eta data agertuko baita.

1.- Elkarteko lehendakariak emandako egiaztagiria, non, besteak beste, ikasleak elkartearen jardueri eskaintzen dien denboraren intentsitatea adierazten den.

Halere, dokumentazioa berrikusteko prozesuan MGEPEko Koordinazio Akademikoko Taldeak informazio gehigarria eskatu ahal izango du ebazpena emateko garrantzitsutzat jotzen dituen gaiak argitzeko.

C. AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazioa matrikula formalizatzen den unean bertan aurkeztu beharko dute edo, beti, ikasturtearen irailaren 15a baino lehen. Bigarren kasu horretan matrikula tituluaren koordinatzaileari helarazi beharko zaio, eta hark MGEPEko Zerbitzu Akademikoen Departamentuan entregatuko du.

D. ESKAERAREN EBAZPENA

MGEPEko Koordinazio Akademikoko Taldeari dagokio ezarritako moduan eta epean jasotako eskaerak ebaztea..

Koordinazio Akademikoko Taldeari dagokio informazio gehigarria eskatzeko ahalmena, baldin eta aurkeztutako informazioa nahikoa ez bada edo eskaera behar bezala justifikatzen ez badu.

Ebazpena jakinaraztean ALDEKOA edo KONTRAKOA den esango da. Lehen kasuan, aitortutako eskubideen irismena ere adierazi beharko da. Horretarako, III. eranskinean jasotako dokumentua erabiliko da.

E. AITORTUTAKO ESKUBIDEAK ERABILTZEA

Koordinazio Akademikoko Taldeak emandako ebazpena abiapuntu hartuta, titulu taldeko irakasle batzuek eta eskatzaileak zehaztuko dute zertan gauzatuko den ikasleari kasu bakoitzean aitortu zaion eskubidea.

**X. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO
ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN
DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK**

F. IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO EALKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTELA EGIAZTATZEN DUTEN IKASLEEN IZAERAREN URTEKO EGUNERAKETA.

Araudiaren kapitulu honetan jasotako eskubideak aitortzea nahi duen ikasleak eskaera hau errepikatu beharko du matrikulatzen den kurtso bakoitzean.

XI. EZGAITASUNA DUTEN IKASLEEN ESKUBIDEAK

Unibertsitatera iristen den ikasle ezgaituaren profila zehaztu ahal izateko, sailkapen hau proposatu da¹²:

- **EZGAITASUN FISIKOAK**

- o Urritasun osteoartikularrak
- o Paraplegia, paraparesia.
- o Tetraplegia, tetraparesia.
- o Gorputz adar bateko paralisia. Paralisi bilaterala aurreko kategoria bietan sailkatu ezina. Anputazioak.
- o Mugimenduaren koordinazioaren nahasmenduak
- o Nerbio sistemaren beste urritasun batzuk
- o Beste urritasun fisiko batzuk

- **EZGAITASUN ORGANIKOAK**

- o Arnas aparatuko urritasunak
- o Aparatu digestiboko urritasunak
- o Sistema endokrino-metabolikoko urritasunak
- o Immunitate sistemako urritasuna
- o Aparatu kardiobaskularreko urritasunak
- o Aparatu genitourinarioko urritasunak
- o Sistema hematopoietikoko urritasunak
- o Beste urritasun organiko batzuk

- **IKUSMENAREN EZGAITASUNAK**

- o Erabateko itsutasuna
- o Ikusmenaren defizita

- **ENTZUMENAREN EZGAITASUNAK**

- o Gortasun prelokutiboa
- o Gortasun poslokutiboa
- o Entzumenaren defizita
- o Oreka nahasmenduak.

- **EZGAITASUN INTELEKTUALAK**

- o Ezgaitasun intelektual sakona eta larria
- o Ezgaitasun intelektual arina
- o Ezgaitasun intelektual ertaina
- o Mugako adimena.
- o Heltze atzerapena

- **BURU NAHASMENDUAK**

- o Eskizofrenia
- o Depresioa
- o Neurosia
- o Afektibitatearen nahasmendua
- o Beste buru nahasmendu batzuk

- **GARAPENAREN NAHASMENDU OROKORRA**

- o Autismoaren espektroko nahasmendua (TEA)

¹² *Desgaitasunaren Behatoki Estatalaren 'Desgaitasuna duten unibertsitate ikasleen profila. 2011-2012 ikasturtea' izeneko liburuan jasotako sailkapena da.*

XI. Ezgaitasuna duten ikasleen eskubideak

- o Asperger sindromea
- o Tourette sindromea.

- NAHASMENDU PSIKOLOGIKOAK

- o Antsietateak eragindako nahasmendua
- o Gogo aldaratearen nahasmendua
- o Nortasunaren nahasmendua
- o Elikadura portaeraren nahasmendua
- o Estresak eragindako nahasmenduak
- o Arreta defizitaren nahasmendua hirperaktibitatearekin (TDAH)
- o Portaeraren nahasmenduak
- o Nahasmendu kognitiboa.

- IKASKUNTZAREN NAHASMENDUA

- o Irakurketaren nahasmendua
- o Kalkuluaren nahasmenduak
- o Adierazpen idatziaren nahasmenduak
- o Espezifikatu gabeko ikaskuntzaren nahasmenduak

- BESTE URRITASUN BATZUK

Behar bezala egiaztatutako ezgaitasuna duen ikasleak ezgaitasun hori dela-eta klaseak eta ikaskuntza edota ebaluazio jarduerak normaltasunez jarraitzerik ez badu, ondoren zehazten diren eskubideak aitortuta edukiko ditu:

- a) Eskoletara ez joatea derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte, premia mediko edo errehabilitazio premiengatik, dagokion medikuak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.
- b) Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- d) Aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegia eta kontrol puntuak malguak izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.

d) Ebaluazio probak ezgaitasuna duten ikasleen premietara egokitu behar dira, eta lan-taldeek beharrezkoa egokitzapenak egin beharko dituzte metodologian, denboran eta espazioetan. Adibidez,

vi.- Kontrol puntuak ikasgela irisgarri batean egitea, edo baita aparteko gela batean ere.

vii.- Kontrol puntuen enuntziatuen hasierako eta bukaerako irakurketa

viii.- Eserlekua erreserbatzea kontrol puntuak egiteko

...

e) Ikaskuntza ingurunea egokitzea, premien arabera:

i.- Testu irakurterazak edukitzea (letra mota eta letra tamaina, espazioak, grafikoak, etab)

ii.- Lanak egiteko denbora gehiago ematea

iii.- Ikus-entzunezkoak egokitzea

iv.- Barruko eta kanpoko praktketan hainbat egokitzapen egitea

v.- Altzari egokituak edukitzea

...

f) Ikaslearen ikaskuntzako aurrerapenaren jarraipen zehatzagoa egitea.

XI. Ezgaitasuna duten ikasleen eskubideak

g) Egoera horiei erantzuteak ez du inola ere ebaluazio proben edukia aldatzea ekarriko (lanak eta kontrol puntuak).

PROZEDURA

Aurretik jasotako eskubideak eskuratzeko interesdunak prozedura hau egin behar du:

A.- PROZEDURAREN HASIERA

1.- Prozedura interesdunak abiaraziko du, ezgaitasunen bat aitortua izanik edo ezgaitasuna eragiten duen gaixotasunen bat diagnostikatuta izanik, IV. Eranskinean jasotako eskaera beteko baitu.

B. DOKUMENTAZIOA

1.- Ezgaitasunaren egiaztagiriaren kopia bat, edo ezgaitasuna eragiten duen gaixotasuna egiaztatzen duten txosten medikoena. Informazio hori posta egiaztatu bidez bidaliko da, Jose Luis Larraberi zuzenduta, edo hari entregatuko dio zuzenean.

Dokumentazioa berrikusteko prozesuan, informazio gehigarria eskatu ahal izango da ebazpena emateko garrantzitsuak direla jotzen diren gaiak argitzeko, eta eskatzaileak emandako informazioaren konfidentzialtasuna zaindu da prozesu horretan.

C. AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazioa matrikula formalizatzen den unean bertan aurkeztu beharko dute edo, beti, ikasturtearen irailaren 15a baino lehen. Gerora gertatutako egoera bat baldin bada, edozein unetan aurkeztu daiteke.

D. DOKUMENTAZIOA BERRIKUSTEA ETA EZGAITASUNA DUEN IKASLETZAT HARTU BEHAR DEN ALA EZ ERABAKITZEA

OSARTENi dagokio¹³ zehaztea ea aurkeztu den dokumentazioa egokia den eta ea ezgaitasuna edo **ezgaitasuna eragiten duen gaixotasuna** ikaskuntza edota ebaluazio jarduerak egoki jarraitzeko eragozpena den ikaslearentzat. Erantzuna baiezkoa bada, Koordinazio Akademikoko Taldeari jakinaraziko dio.

Koordinazio Akademikoko Taldeak ikasleak baliatu ahal izango dituen eskubideen berri emango dio ikasleari, edo beren gurasoei edo tutoreei, bai eta kurtso/seihilekoko PDIri ere. Jakinarazpen hau egiteko IV. Eranskina erabiliko da.

E. AITORTUTAKO ESKUBIDEAK ERABILTZEA

Koordinazio Akademikoko Taldeak emandako ebazpena abiapuntu hartuta, titulu taldeko irakasle batzuek eta eskatzaileak (edo bere gurasoek edo tutoreek, behar izanez gero) zehaztuko dute zertan gauzatuko den ikasleari kasu bakoitzean aitortu zaion eskubidea.

F. EZAGAITASUNA DUEN IKASLEAREN IZAERAREN URTEKO EGUNERAKETA

Araudiaren kapitulu honetan jasotako eskubideak aitortzea nahi duen ikasleak eskaera hau errepikatu beharko du matrikulatzen den kurtso bakoitzean.

¹³ **Osarten** Kooperatiba Elkartearen prebentzio zerbitzu mankomunatu bat da, eta bere misioa da enpresa elkartuetako langileen osasuna eta segurtasuna sustatzea

XII. MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Mugikortasun egonaldietan lortutako emaitzen ebaluazioa dokumentu honetan jaso da: "Mugikortasun egonaldietan lortutako emaitzen ebaluazioa", zeinak araudi hau osatzen baitu (ikus V. eranskina)

XIII. IRAUPEN ARAUTEGIA

Titulazioaren iraupen arautegiak funtsezko bi aspektu ditu: ikaslea eskoletara agertzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzea, eta emaitza akademikoetan:

- Ikaslea eskoletara etortzea eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzea. Ikasleren bat eskolara agertu ez eta hori justifikatzen ez badu, eta hori maiz gertatzen bada edo denbora tarte luzeetan; horrek bere prestakuntza erritmoan, eta baita bere ikaskideenarenean ere, eragiten duen interferentzia kontuan hartuz, horregatik bakarrik irakasgaia (edo seihileko hainbat irakasgai) errepikatzeko exijitu dakioko; eta are gehiago: baita ikasketak uzteko ere.
- Ikasturte bat hiru aldiz egin eta konpetentziak ez eskuratzeagatik, eta, -balegokio-, deialdi gehigarrian ere ikasgaia ez gainditzeagatik, nahitaezko baja ematea.

XIV. EUSKARAREN C1 MAILA ZIURTATZETIK SALBUESTEA

47/2012 DEKRETUAK, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko denak eta 2012ko apirilaren 16ko EHAA argitaratutakoak, aukera ematen die Gradu edota Master Partzialeko ikasketak egiten ari diren ikasleei egiaztagiria bat eskuratzeko euskarazko C1 maila egiaztatutako behar ez izateko.

Dekretu horrek aukera hauek ezartzen ditu egiaztagiri hori eskuratzeko:

Estudios en euskera	Requisito adicional	Créditos específicos de formación lingüística en euskera	Exención de acreditación de los niveles equivalentes a
48 ECTS	Trabajo Fin de Grado o Trabajo Fin de Master Oficial en euskera	12 ECTS	C 1
84 ECTS		12 ECTS	C 1
114 ECTS		6 ECTS	C 1
144 ECTS			C1
Título de Doctor (Tesis escrita y defendida en euskera)			C 2
Grado en Estudios Vascos o Grado en Filología Vasca			C 2
Grado en Traducción e Interpretación con lengua vasca como lengua A			C2

Nota 1: los créditos ECTS requeridos podrán obtenerse de una única titulación de grado o de la suma de los créditos correspondientes a una única titulación de Grado y a una única titulación de Master Oficial.

Nota 2: en los casos en los que la realización en euskera del Trabajo Fin de Grado o del Trabajo Fin de Master no sea requisito adicional, los créditos correspondientes al mismo tendrán un valor doble a la hora de su cómputo para el logro del total de los créditos ECTS de la primera columna.

MGEPEk, berriz, “GBLaren Gida Akademiko-Administratiboa” eta “GBLren ebaluazio sistema” izeneko dokumentuetan zehazten ditu zer irizpide bete beharko diren GBL euskaraz egin dela onartzeko.

XV. MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEA

MUGIKORTASUNA GESTIONATZEKO EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK

Ikasleen mugikortasunaren planifikazioa eta kudeaketa titulu taldeari dagozkio. Labur-labur, eta modu atenporalean, bertako ikasleen mugikortasuna gestionatzeko planifikatutako jarduerak xehatuko ditugu:

- ERASMUS ikasketak egiteko plaza kopuruaren aurreikuspena: Herri Administrazioarekin (laguntzen gestioa) eta Unibertsitateekin (eskuragarri dauden plazen gestioa eta hitzarmenak eta Learning Agreement izenpetzea).
- ERASMUS praktikak egiteko plaza kopuruaren aurreikuspena: Herri Administrazioarekin (laguntzen gestioa) eta enpresekin (eskuragarri dauden plazen gestioa).
- Aurreko urteetako internalizazio eskaintza ikasleen artean zabaltzea, eta interes zein lehentasunei buruzko inkesta betetzeko eskatzea.
- Jasotako informazioaren tratamendua eta plazen esleipena lehentasunen arabera.
- Aldez aurreko administrazio izapideak formalizatzea (Goi Eskola Politeknikoa, ikaslea eta helburu Unibertsitatea).
- Atzerriko egonaldia: Learning Agreement egokitzapena (Erasmus ikasketen kasuan).
- ECTS kredituen aitortpena eta metaketa, atzerriko erakundean prestakuntza aldia behin bukatuta eta helburuko Unibertsitatean eskuratutako emaitzak kontuan hartuta.

KREDITUAK AITORTZEKO SISTEMA (UNIBERTSITATE ARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMAK)

Unibertsitate arteko mugikortasun programen babesean atzerrian egonaldiak egiten dituzten ikasleen kredituen aitortpena egiteko eta kredituak metatzeko Sistemak honako oinarri hauek ditu:

- Ikasleak eta tituluaren harreman internazionalen arduradunak egonaldian zehar ikasleak zeintzuk gai/irakasgai ikasiko dituen adosten dute, eta baita ikaslea GEP honetako ikasketetara bueltatzen denean zeintzuk gai aitortuko zaizkion ere.
- Proposamena Learning Agreementean jasotzen da.
- Ikasleak jatorrizko Learning Agreement-a aldatzeko proposamena egin dezake, baina aldaketa hori egiteko motiboak argudiatu behar ditu.
- Tituluaren harreman internazionalen arduradunak proposamenari aski motibatua irizten badio, aldaketa onartu egiten du.

- Ikasleak atzerriko egonaldia amaitzen duenean, Eskola honetan atera gabeko kredituak aitortu egingo zaizkio, eta irakas-karga totala atzerriko erakundean egiaztatutakoaren antzekoa izango da (Learning Agreement-aren arabera).
- Aurreko ataletan jasotakoaren arabera aitortutako kredituak zenbakizko kalifikazioen bidez kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Lehenago adierazi den legez, ikaslearen espediente akademikoan aitortutako kredituak ere jasoko dira. Kasu horretan, jatorriko irakaskuntzen gaineko informazio hau azaldu beharko da: unibertsitatea(k), irakaskuntza ofizialak eta horiek zein adarri atxikitzen zaizkion; lortutako gai edota irakasgaiak eta kreditu kopurua, eta eskuratutako kalifikazioa.
- Tituluari egindako Gehigarri Europarrean, espresuki azalduko dira, atal espezifiko batean, ikasleak egindako mugikortasun egonaldiak: unibertsitatea(k), irakaskuntza ofizialak eta horiek zein adarri atxikitzen zaizkion; lortutako gai edota irakasgaiak eta kreditu kopurua, eta eskuratutako kalifikazioa.

XVI. ESPARRUA ETA ESKUMENAK

Koordinazio Akademikoko Taldeak, arautegi honetan azaltzen ez diren kontuei erantzuteko, egokitzen jotzen duen nahi beste arau agindu ahal izango du.

Koordinazio Akademikoko Taldea, Arautegi honetan xedatutakoari jarraituz, Gradu unibertsitate ikasketetan Jarduera Akademikoa zuzen garatzen dela zainduko du, eta egokitzen jotzen dituen hobekuntza proposamenak egingo ditu, Hezkuntza Komunitatea eta GEPeko tituludunak hartzen dituzten Enpresak ahalik eta gusturen egon daitezten.

Arau hauek MU-GEPen matrikulatutako ikasle guzietan daude zuzenduta. Arauak ez betetzea, falta arin edo larritzat har daiteke, eta kasuan kasu dagokiona erabakitzeko irakaslea aski izan daiteke; edota lan-taldeko koordinatzailea, titulu koordinatzailea zein Koordinatzaile Akademikoaren parte hartzea ekar lezake. Ezarri litekeen zigorra arreta deitzetik hasi eta Eskolatik botatzeraino iris daiteke, hurrenkera honetan: ahoz atentzioa deitu, idatziz atentzioa deitu, azterketa egiteko eskubidea kendu, espediente zabaltzea, eta Eskolatik bota.

Arautegi honetan xedaturik ez dauden kasuetan, Koordinatzaile Akademikoa izango da erabakitzen duena, interesdunak aurrez hala eskatuta eta kasu bakoitzean biltzen diren inguruabarrak analizatu ondoren.

Arautegi honetan ondorengo aldaketak egitea Koordinazio Akademikoko Taldearen eskumen eskusiboa da, bertako edozein kidek hala proposatuz gero.

Arautegi hau 2020-2021 ikasturtean zehar egongo da indarrean.

I. ERANSKINA.- TITULU ALDAKETA ESKATZEA.

I. ERANSKINA.- Titulua aldatzeko eskaria

GRADUA

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

01/09/2020

I. ERANSKINA.- Titulua aldatzeko eskaria

Aurkibidea:

0. ALDAKETEN HISTORIALA	2
I.- ARAUDIAREN HELBURUA	3
II. TITULUA ALDATZEKO ESKARIA EGITEKO EPEA	3
III. MATRIKULEN ZENBATEKOETAN DAUKAN ERAGINA	3
IV. TITULUA ALDATU OSTEKO KASUAK.....	3
a) Utzi nahi den tituluaren 1. maila osorik gainditu eta gero aldatzea	3
b) Utzi nahi den tituluaren 1. maila osorik gainditu gabe aldatzea	4
c) Utzi nahi den tituluaren 2. maila osorik gainditu eta gero aldatzea	4
d) Utzi nahi den tituluaren 2. maila osorik gainditu gabe aldatzea	4
V. TITULUA ALDATZEKO MUGAK.....	4
VI. ESPARRUA ETA ESKUMENAK.....	4
VII. Titulu aldaketetan egindako aitortzak. Antzekoenen adibideak.	5

I. ERANSKINA.- Titulua aldatzeko eskaria

0. ALDAKETEN HISTORIALA

Bertsio zk.	Data	Egindako aldaketa
4	01.09.2020	1.-Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko.
3	01.09.2019	1.- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko. 2.- Aurreko bertsioan zegoen II atala (TITULUA ALDATZEA ESKAERA EGITEKO EPEA) beste honengatik aldatu: (TITULUA ALDATZEA ESKATZEKO PROZEDURA).
2	06.09.2018	1.- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko. 2.- III atala kendu: "GRADUKO MATRIKULAREN ARAU OROKORRAREN SALBUESPENA" 3.- VII. atala eguneratu: "Titulu aldaketetan egindako aitortzak. Antzekoenen adibideak'.
1	01.09.2016	1.- Dokumentuan azaltzen diren datak eguneratu dira ikasturte berrira egokitzeko.
Hasierako bertsioa	30.09.2015	--

I. ERANSKINA.- Titulua aldatzeko eskaria

I.- ARAUDIAREN HELBURUA

Araudi honen helburua da MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Goi Eskola Politekniko honetan (MU-GEP) Gradu ikasketak amaitu gabe ikasketa horiei utzi eta maila bereko beste Gradu bati ekin nahi dioten ikasleek bete beharreko epea eta baldintzak ezartzea.

II. TITULUA ALDATZEKO ESKARIA EGITEKO PROZESUA

a) Titulua aldatzeko plaza erreserba

Ikasle berrientzako plaza kopuru mugatua duten tituluetan, plazen %5a gordeko da lehen eta bigarren mailetan MU barnean titulua aldatu nahi dutenentzat eta beste Unibertsitate baten ikasten ibilita, beren espediente MURa lekuz aldatu nahi dutenentzat. Ikasketak MUn hasita duten ikasleek lehentasuna izango dute, beti ere araudi honetan finkatutako modu eta epean gauzatu badute titulua aldatzeko eskaria.

b) Titulua aldatzeko eskaria egiteko epea

Titulua aldatzeko eskatu nahi duten ikasleek amaitzear dagoen ikasturteko ekainaren 15a baino lehen bideratu beharko dute eskaria. Horretarako, araudi honi atxiki zaion 'TITULUA ALDATZEKO ESKARIA' izeneko agiria bete behar dute, eta Josune Benitori bidali, MU-GEPEko zerbitzu akademikoetara (jbenito@mondragon.edu). Interesdunak egin nahi duen tituluaren koordinatzaile akademikoak titulu berrian sartzea onartu beharko du. Aurretiazko onarpen hori egon ezean, ikasleak ezingo du titulu berrian matrikulatu.

c) Onarpena jakinaraztea

Titulu berrian onartua izan den uztailean jakinaraziko zaio ikasleari, tituluetan plaza hutsik dagoen eta zenbat jakiten denean.

III. MATRIKULEN ZENBATEKOETAN DAUKAN ERAGINA

Matrikularen zenbatekoetan izango duen eragina titulua aldatzen den unearen arabera izango da:

- Ikasturtea hasi aurretik egin bada, ikasturte berrirako matrikularekin kointzidituta, matrikularen zenbatekoa ikaslea matrikulatu deneko ECTS kopuruari dagokiona izango da, matrikula formalizatu den unetik bertatik.
- Tituluaren aldaketa ikasturtea hasi eta gero egin bada, titulu berriaren kostua matrikula berriarena izango da, eta handitu edo gutxitu egingo da (dagokionaren arabera), ikasleak titulu berrian egingo dituen ECTS-en kopuruaren arabera.

IV. TITULUA ALDATU OSTEKO KASUAK

Ondorengo paragrafoetan titulua aldatzeko eskatzen duten ikasleak zein egoera akademikotan geratzen diren jasotzen da, kasuistika desberdinei erreparatuz.

a) Utzi nahi den tituluaren 1. maila osorik gainditu eta gero aldatzea

1. Ikasleak gradu berriko 2. mailan sartu ahal izango da baldin eta 1. mailatik falta zaion ECTS kopurua –titulu berrian ez direlako aitortzen¹ – <= 12 bada. Titulu berrian hasi eta gero, Gradu araudi akademiko orokorrera egokitu beharko du.

¹ Araudi honetan aurreikusitako ondorioetarako (1393/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera) 'aitortzeak esan nahi du unibertsitate batek onartzen duela bere ikasketa ofizialetan edo beste unibertsitate baten ikasketa ofizialetan lortutako kredituak beste ikasketa batzuetan zenbatu ahal izatea titulu ofizial bat eskuratzeko.'

I. ERANSKINA.- Titulua aldatzeko eskaria

a.2. 1. mailako ECTS kopurua >12 bada (titulu aldaketan ez direlako aitortzen), ezingo da aldi berean titulu berriko 2. mailako ikasgaietan matrikulatu, 1. mailako ikasgai guztiak gainditu arte.

b) Utzi nahi den tituluaren 1. maila osorik gainditu gabe aldatzea

b.1. Tituluaren 1. maila gainditu ez eta hori utzi eta MU-GEPen beste bat hasi nahi duen ikaslea ezingo da 2. mailan sartu titulu berriari 1. maila osorik gainditu arte.

c) Utzi nahi den tituluaren 2. maila osorik gainditu eta gero aldatzea

c.1. Ikasleak gradu berriko 3. mailan sartu ahal izango da baldin eta 1. edo 2. mailatik falta zaion ECTS kopurua –titulu berriari ez direlako aitortzen– ≤ 12 bada. Titulu berriari hasi eta gero, Graduako araudi akademiko orokorrera egokitu beharko du.

c.2. 1. edo 2. mailako ECTS kopurua >12 bada (titulu aldaketan ez direlako aitortzen), ezingo da aldi berean titulu berriko 3. mailako ikasgaietan matrikulatu, aurreko mailetakoko ikasgai guztiak gainditu arte.

d) Utzi nahi den tituluaren 2. maila osorik gainditu gabe aldatzea

d.1. Tituluaren 2. maila gainditu ez eta hori utzi eta MU-GEPen beste bat hasi nahi duen ikaslea ezingo da 3. mailan sartu titulu berriari 1. eta 2. mailak osorik gainditu arte.

V. TITULUA ALDATZEKO MUGAK

Graduko ikasketetan zehar titulu aldaketa bat baino ez da onartuko.

VI. ESPARRUA ETA ESKUMENAK

Koordinazio Akademikoko Taldeak zaindu egingo du arautegi honetan xedatutakoa betetzen dela, eta egoki deritzon arauak eman ahal izango ditu bertan jasota ez dauden gaietarako.

Arautegi honetan xedaturik ez dauden kasuetan, Koordinatzaile Akademikoak erabakiko du dagokiona, interesdunak aurrez hala eskatuta eta kasu bakoitzean dauden inguruabarrak analizatu ondoren.

Arautegi honetan ondorengo aldaketak egitea Koordinazio Akademikoko Taldearen eskumen eskusiboa da, bertako edozein kidek hala proposatuz gero.

Arautegi hau 2020-2021 ikasturtean zehar egongo da indarrean.

I. ERANSKINA.- Titulua aldatzeko eskaria

VII. Titulu aldaketetan egindako aitortzak. Antzekoenen adibideak.

Ondoren, 2019-20 ikasturtea amaitu eta gero titulua aldatzeko eskatu duten graduako 1. mailako ikasleei aplikatutako aitortza batzuk erakusten dira.

M2GB

M2GE-tik	M2GB-ra
	ADIERAZPEN GRAFIKOA
	FISIKA I
	FISIKA II
	INFORMATIK. OINARRIAK
	OINAR. METODOLOGIKOAK
	MATEMATIKAK I
	MATEMATIKAK II
	KIMIKA

M2GM-tik	M2GB-ra
	ADIERAZPEN GRAFIKOA I
	ADIERAZPEN GRAFIKOA II
	FISIKA I
	FISIKA II
	INFORMATIK. OINARRIAK
	OINAR. METODOLOGIKOAK
	MATEMATIKAK I
	MATEMATIKAK II
	KIMIKA

M2GJ

M2GE-tik	M2GJ-ra
	OINAR. METODOLOGIKOAK

M2GM-tik	M2GJ-ra
	INFORMATIKA

M2GE

M2GI-tik	M2GE-ra
	ENPRESA

M2GT-tik	M2GE-ra
	ELEKTRO. ANALOGIKOA

M2GM

M2GD-tik	M2GM-ra
	SORMENA
	FISIKA I
	INFORMATIK. OINARRIAK
	OINAR. METODOLOGIKOAK

M2GI-tik	M2GM-ra
	ENPRESA
	MATEMATIKAK I

M2GI

M2GA-tik	M2GI-ra
	FISIKA I
	INFORMATIK. OINARRIAK
	OINAR. METODOLOGIKOAK
	MATEMATIKAK I
	MATEMATIKAK II

M2GT-tik	M2GI-ra
	PROGRAMAZIO AURRERAT.
	KOMUNIKAZIO SAREAK I

M2GO

M2GE-tik	M2GO-ra
	ALJEBRA LINEALA
	MATEMATIKAK I
	MATEMATIKAK II
	ENPRESA
	ESTADISTIKA
	ADIERAZPEN GRAFIKOA
	FISIKA ELEC&ELECTRO.
	FISIKA MEKANIKOA
	INFORMATIK. OINARRIAK
	KIMIKA

M2GM-tik	M2GO-ra
	ENPRESA
	ADIERAZPEN GRAFIKOA I
	FISIKA I
	FISIKA II
	MATERIAL. ZIENTZ. OINARR.
	INFORMATIK. OINARRIAK
	OINAR. METODOLOGIKOAK I
	MATEMATIKAK I
	MATEMATIKAK II
	KIMIKA

Arrasaten, 2010ko irailaren 1ean



Titulu Aldaketa / *Cambio de Título*

Izena / *Nombre*: _____

Idala / *Idal*: _____

Ikasten dagoen tituloa eta kurtsoa / *Título y el curso que se está cursando*: _____

Eskatzen dut / *Solicito*: _____

Arrasaten, _____ ko _____ aren ____ (e)an.

Sindaura / *Firma*

II.ERANSKINA- GOI MAILAKO EDO
ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI, TEKNIKARI
EDO EPAILE IZAERA EDO HORREKIN
PAREKAGARRI DEN IZAERA AITORTZEKO
ESKAERA ETA EBAZPENA

GOI MAILAKO EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZAERA EDO HORREKIN PAREKAGARRI DEN IZAERA AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA

_____ jaunak/andreak, _____, NAN
zenbakidunak, _____ ikasturtean
_____ tituluaren _____(e)n matrikulatuta
dagoenak (Graduko edo Masterreko 1., 2., 3. edo 4. Mailan, kasuan-kasuan)

AZALTZEN DU:

Eskaerarekin batera doan dokumentaziotik ondorioztatzen denez, (adierazi X batekin dagokiona),

- Goi mailako edo errendimendu handiko kirolari, teknikari edo epailea da, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko, 203/2010 dekretuak aitortua (EHAA 2010.08.20), edo uztailaren 13ko, 971/2007 Errege Dekretuagatik (BOE 2007.07.25).
- Goi mailako edo errendimendu handiko kirolari, teknikari edo epailea da, kirol jarduera altuagatik
- _____(kirola),
_____, diziplinan egiteak, proba/txapelketa/lehiaketa, etab.
bere ohiko bizilekutik 200 Km baino gehiagora mugitzea behartzen du.

Arrazoi horregatik, hau **ESKATZEN DU** ikasturte honetarako:

- Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea (derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte), lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.
- Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.
- Praktiak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

_____, _____(e)ko _____aren _____ a (eguna eta lekua)

Interesdunaren izenpea

GOI MAILAKO EDO ERRENDIMENDU HANDIKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZAERA EDO HORREKIN PAREKAGARRI DEN IZAERA AITORTZEKO ESKAERAREN EBAZPENA

_____ jaunak/andreak, MGEPEko
Koordinazio Akademikoko Taldearen ordezkaritzan,
_____ ikasleari jakinarazten dio
irakaskuntza, goi mailako edo errendimendu handiko kirolari, teknikari edo epaile izaera edo horrekin parekagarri den izaera duen ikaslea dela aitortu dezaten aurkeztu duen eskaera eta dokumentazioa aztertu dutela eta horren ondorioz ebazpen hau ematea erabaki dutela:

ALDEKOA

EZ ALDEKOA

Irismen honekin (osatu soilik ebazpena ALDEKOA bada).

Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea (derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte), lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.

Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.

Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.

Praktiak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

Arrasaten, _____(e)ko _____aren _____(e)an

Izenpea

III. ERANSKINA.- IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE,
ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO
ELKARTEETAN ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO
HANDIZ PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN
IZAERA AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA

**IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN
ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN IZAERA
AITORTZEKO ESKAERA ETA EBAZPENA**

_____ jaunak/andreak, _____, NAN
zenbakidunak, _____ ikasturtean
_____ tituluaren _____(e)n matrikulatuta
dagoenak (Graduko edo Masterreko 1., 2., 3. edo 4. Mailan, kasuan-kasuan)

AZALTZEN DU:

Eskaerarekin batera doan dokumentaziotik ondorioztatzen denez, (adierazi X batekin dagokiona),

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX elkartean dedikazio handia duen ikaslea dela.

Arrazoi horregatik, hau **ESKATZEN DU** ikasturte honetarako:

- Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea (derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte), elkarteko jardueretan parte-hartzeagatik, dagokion elkarteko lehendakariaren ziurtagiri baten bidez justifikatuta.
- Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikorako moldatu beharko du ikasleak.
- Praktikak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

_____, _____(e)ko _____aren _____ a (eguna eta lekua)

Interesdunaren izenpea

**IRAKASKUNTZA, KULTUR, ARTE, ONGINTZA ETA LAGUNTZA IZAERAKO ELKARTEETAN
ETA ANTZEKOETAN DEDIKAZIO HANDIZ PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN IZAERA
AITORTZEKO ESKAERAREN EBAZPENA**

_____ jaunak/andreak, MGEPEko
Koordinazio Akademiakoko Taldearen ordezkaritzan,
_____ ikasleari jakinarazten dio
irakaskuntza, kultur, arte, ongintza eta laguntza izaerako elkarteetan eta antzekoetan dedikazio handiz parte
hartzen duen ikaslea dela aitortu dezaten aurkeztu duen eskaera eta dokumentazioa aztertu dutela eta horren
ondorioz ebazpen hau ematea erabaki dutela:

ALDEKOA

EZ ALDEKOA

Irismen honekin (osatu soilik ebazpena ALDEKOA bada).

Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea (derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte), elkarteko jardueretan parte-hartzeagatik, dagokion elkarteko lehendakariaren ziurtagiri baten bidez justifikatuta.

Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.

Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.

Praktikak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

Arrasaten, _____(e)ko _____aren _____(e)an

Izenpea

IV. ERANSKINA.- EZGAITASUN BAT AITORTUA IZATEAGATIK ONURA ETA ESKUBIDEEN ESKAERA

EZGAITASUN BAT AITORTUA IZATEAGATIKO ONURA ETA ESKUBIDEEN ESKAERA

_____, jaunak/andreak, _____, NAN
zenbakidunak, _____ ikasturtean
_____, tituluaren _____(e)n matrikulatuta
dagoenak (Graduko edo Masterreko 1., 2., 3. edo 4. Mailan, kasuan-kasuan)

AZALTZEN DU:

Eskaerarekin batera doan dokumentaziotik ondorioztatzen denez, ezgaitasun aitortua duen ikaslea da.

Arrazoi horregatik, hau **ESKATZEN DU** ikasturte honetarako:

- Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea, derrigorrezko eskola-saioen % 50eko muga arte, premia mediko edo errehabilitazio premiengatik, betiere dagokion medikuak ziurtagiri baten bidez justifikatuta badago.
- Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.
- Ikaskuntza ingurunea egokitzea, premien arabera.
- Bere ikaskuntzako aurrerapenaren jarraipen zehatzagoa egin diezaiotela.
- Ebaluazio probak aitortu zaizkion ezgaitasunagatik dituen premietara egokitzeko (egokitzapenak metodologian, denboran, espazioetan, etab.)
- Praktikak eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

Eta eskaera honi jarraibidea emateko eta sinatzaileak dituen beharren balorazioa egiteko, baimena ematen dio MEGP-i ondoko datuak lagatzeko OSARTEN, S. Coop.-i (enpresa honek egingo baitu balorazioa): NAN zbkia; IZEN-ABIZENAK; KONTAKTURAKO TFOA; eta HELBIDE ELEKTRONIKOA.

_____, _____(e)ko _____aren _____ a (eguna eta lekua)

Interesdunaren izenpea

EZGAITASUNA DUTEN IKASLEEI DAGOZKIEN ESKUBIDE ETA ONUREN ESKAERAREN EBAZPENA

_____, jaunak/andreak, MGEPEko
Koordinazio Akademiakoko Taldearen ordezkarietan,
_____, ikasleak jakinarazten dio
ezgaitasun aitortua duen ikaslea dela, aurkeztu duen eskaera eta dokumentazioa aztertu dutela eta horren
ondorioz ebazpen hau ematea erabaki dutela:

ALDEKOA

EZ ALDEKOA

Irismen honekin (osatu soilik ebazpena ALDEKOA bada).

- Derrigorrezko eskoletara ez joatea justifikatuta edukitzea, derrigorrezko eskola-saioren % 50eko muga arte, premia mediko edo errehabilitazio premiengatik, betiere dagokion medikuak ziurtagiri baten bidez justifikatuta badago.
- Matrikulatzeko orduan malgutasuna. Titulu koordinatzaileak eta ikasleak adostuko dute honek ikasturte bakoitzean matrikulatuko den ECTS kopurua eta ikasgaiak.
- Azterketak egiteko eta aurkeztu beharreko ariketa, lan, eta abar, entregatzeko egutegi malgua izatea. Lan-taldeak finkatuko duen egutegi espezifikora moldatu beharko du ikasleak.
- Ikaskuntza ingurunea egokitzea, premien arabera.
- Bere ikaskuntzako aurrerapenaren jarraipen zehatzagoa egin diezaiotela.
- Ebaluazio probak aitortu zaizkion ezgaitasunagatik dituen premietara egokitzeko (egokitzapenak metodologian, denboran, espazioetan, etab.)
- Praktika eta GBLa/MBLa lanaldi erdian egitea, lanaldi osoan egin ordez.

Arrasaten, _____(e)ko _____aren _____(e)an

Izenpea

V. ERANSKINA- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

**V. Eranskina- MUGIKORTASUN
EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN
EBALUAZIOA**

GRADUA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

01/09/2020

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Aurkibidea:

0.- ALDAKETEN HISTORIALA	2
1.- SARRERA	3
II. ARAUDI HONI ATXIKITAKO KOLEKTIBOAK	3
III. MUGIKORTASUNAREN IRISMENA (IKASLEEK EGONALDIAN LORTUTAKO EMAITZAK EBALUATZEKO ONDORIOETARAKO) ...	3
IV. ATZERRIAN LORTUTAKO KALIFIKAZIOEN BIHURKETA ETA EBALUAZIOA	3
V. AITORTUKO DIREN ECTS KOPURUA ZEHAZTEA	3
VI. MGEP-EN AITORTU BEHARREKO IKASGAIK EBALUATZEKO ERA	4
VII. A MUGIKORTASUNA.- DB HITZARMENIK GABE MUGIKORTASUNEAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEAK.	4
VII.1. Mugikortasuna 4.ean (1. seihilekoa)	4
VII.1.a. 1. kasua. Helmugako unibertsitatean 6 ECTS baino gutxiago suspenditu ditu	4
VII.1.b.- 2. Kasua. 6 eta 12 arteko ECTS suspenditu ditu (hau da, gutxienez 18 ECTS gainditu ditu)	4
VII.1.c.- 3. Kasua. 12 ECTS baino gehiago suspenditu ditu	4
VII.2. Mugikortasuna 4.ean (ikasturte osoa egin dute atzerrian (48 ECTS ikasgaietan + 12 ECTS GBLean)	5
VII.2.a.- 1. kasua. Atzerriko egonaldiaren lehen seihilekoa amaitu eta gero, 12 ECTS baino gehiago suspenditu ditu	5
VII.2..b.- 2. kasua. Atzerriko egonaldiaren amaieran 18 ECTS edo gutxiago suspenditu ditu	5
VII.2.c.- 3. kasua. Atzerriko egonaldiaren amaieran 18 ECTS baino gehiago suspenditu ditu	5
VII.3. Mugikortasuna 3.ean	5
VII.3.a.- 1. kasua. MGEPen adierazitako eta bere tituluan aitortutako ikasgaiak helmugako unibertsitatean egin ditu eta ECTS guztiak gainditu ditu	5
VII.3.b.- 2. kasua. MGEPen adierazitako eta bere tituluan aitortutako ikasgaiak helmugako unibertsitatean egin ditu, baina ez ditu ECTS guztiak gainditu	5
VII.3.c.- 3. kasua. MGEPen adierazitako baina bere tituluan aitortu gabeko ikasgaiak helmugako unibertsitatean egin eta gainditu ditu	5
VIII. B MUGIKORTASUNA.- DB HITZARMENAREKIN MUGIKORTASUNEAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEAK.	6
VIII. a.- 1. kasua. Ikasleak atzerriko ikastetxean egindako ikasgai guztiak gainditu ditu eta Stage-a egin du	6
VIII. b)- 2. kasua. Ikasleak ekainean 48 ECTS edo gehiago gainditzea helmugako Unibertsitatean egindako ikasgaietan, eta Stage-a eginda izatea	6
VIII. c) 3. kasua. Ikasleak ekainean 48 ECTS baino gutxiago gainditu ditu helmugako Unibertsitatean egindako ikasgaietan, eta Stage-a eginda izatea	6
IX. HELMUGAKO UNIBERTSITATEAN LORTUTAKO KALIFIKAZIOEN BEHIN-BEHINEKO IZAERA ETA BEHIN BETIKOA	6
X. ESPARRUA ETA ESKUMENAK	7

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

0.- ALDAKETEN HISTORIALA

Bertsio zk.	Data	Egindako aldaketa
4	2020.09.01	1. Dokumentuaren datak eguneratu
3	2019.09.01	1. Dokumentuaren datak eguneratu
2	2018.09.10	1. Dokumentuaren datak eguneratu. 2.- Atzerriko noten birmoldaketak edo baliokidetasunak jasotzen dituen taula ordezteak, 1125/2003 Errege Dekretuak emandako Kualifikazioen Sistemarekin, 2017ko irailaren 18ko Ebazpenaren bidez argitaratutakoaren arabera, eskala zerrenda eguneratzen da (A Eranskina)
1	2016.09.01	1. Dokumentuaren datak eguneratu. 2. Hau esaten zuen lekuan: <i>'Ikasleak mugitu denean izan duen helmugako Erakundean araua bada gainditu gabeko ECTS-en nota EZ EGIAZTATZEA (ez kuantitatiboki ez kualitatiboki), MGEP-en ulertuko da, ondorio guztietarako, kredituak ez direla egin, eta ikasleak egin egin beharko ditu, araudi honetan landu diren kasuistiken arabera, edo, bestela, bere egoera araudi honetan ez badago jasota, Koordinazio Akademikoko Taldeak erabakitzen duena bete beharko du';</i> Hau jarri da: <i>"Ikasleak mugitu denean izan duen helmugako Erakundean araua bada gainditu gabeko ECTS-en nota kalifikazio-eskala baten bidez EZ EGIAZTATZEA (ez kuantitatiboki ez kualitatiboki), MGEP-en ulertuko da, ondorio guztietarako, kredituak ez direla egin, eta ikasleak egin egin beharko ditu, araudi honetan landu diren kasuistiken arabera, edo, bestela, bere egoera araudi honetan ez badago jasota, Koordinazio Akademikoko Taldeak erabakitzen duena bete beharko du'</i>
Hasierako bertsioa	2015.09.30	

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

1.- SARRERA

Araudi honen helburua da irizpideak ezartzea atzerriko unibertsitate batera irten eta mugikortasun ekintzetan parte hartzen duten ikasleek MGEPen egin gabe uzten dituzten ikasgaien ECTS kredituak ebaluatzeko eta aitortzeko.

II. ARAUDI HONI ATXIKITAKO KOLEKTIBOAK

Araudi hau kolektibo hau aplikatu ahal izango zaie:

A. Atzerriko unibertsitate batera irten eta mugikortasun ekintzetan parte hartzen duten MGEPeke ikasleak, Diploma Bikoitzaren hitzarmenik gabe (DB).

B. Atzerriko unibertsitate batera irten eta mugikortasun ekintzetan parte hartzen duten MGEPeke ikasleak, Diploma Bikoitzaren hitzarmenarekin (DB).

III. MUGIKORTASUNAREN IRISMENA (IKASLEEK EGONALDIAN LORTUTAKO EMAITZAK EBALUATZEKO ONDORIOETARAKO)

A.DB hitzarmenik gabe mugikortasunean parte hartzen duten ikasleak.

Ebaluatzeko ondorioetarako, ikasleak MGEPerantz itzultzen direnean, beraiek lortutako emaitza akademikoak behin betikoak dira, eta horrelakotzat jotzen dira ECTS kredituak aitortzeari dagokionez, alde batera utzita helmugako erakundean lehen deialdian gainditu gabeko ikasgaiak ondoren errekuiperatzeko izan dezaketen aukera (adibidez, uztailean).

B. DB hitzarmenarekin mugikortasunean parte hartzen duten ikasleak.

Mugikortasunean DB hitzarmenarekin parte hartzen duten ikasleei dagokienez, MGEPerantz itzultzen direnean gutxiegi notak badituzte eta helmugako erakundeak aukera ematen badiete gainditu gabeko ikasgaiak errekuiperatzeko, erakunde horretako errekuiperazioaren emaitzaren zain geratuko gara, dagozkion aitortzak aplikatzeko.

IV. ATZERRIAN LORTUTAKO KALIFIKAZIOEN BIHURKETA ETA EBALUAZIOA

Ikasleak atzerrian lortutako kalifikazioak (zenbakizkoak zein kualitatiboak), 1125/2003 Errege Dekretuak ezarritako kalifikazio sistemara bihurtuko dira, erantsitako taularen arabera (A Eranskina), ATZERRIKO UNIBERTSITATE SISTEMETAKO KALIFIKAZIOAK ESPAINIAKO UNIBERTSITATE SISTEMETARA EGOKITZEKO TAULA. Une horretatik aurrera, ebaluazio saioak deitutako dira, emaitzak baloratzeko eta kasu bakoitzean dagozkion erabakiak hartzeko. Egoera normaletan, prozesu hori otsaileko ebaluazioak (1. seihilekoan) eta uztaileko ebaluazioak (2. seihilekoa) egin aurretik amaitu beharko da. Ebaluazioa burutu eta gero, notak idazkaritza birtualean argitaratuko dira, eta tituluaren koordinatzaileak ikasleei jakinaraziko dizkie ebaluazioaren emaitzak eta errekuiperatu beharreko ECTSak, baldin badagokio.

Ikasleak mugitu denean izan duen helmugako Erakundean araua bada gainditu gabeko ECTSen nota EZ EGIAZTATZEA (ez kuantitatiboki ez kualitatiboki), MGEPen ulertuko da, ondorio guztietarako, kredituak ez direla egin, eta ikasleak egin egin beharko ditu, araudi honetan landu diren kasuistiken arabera, edo, bestela, bere egoera araudi honetan ez badago jasota, Koordinazio Akademikoko Taldeak erabakitzen duena bete beharko du.

V. AITORTUKO DIREN ECTS KOPURUA ZEHAZTEA

Ikasleek mugikortasun ekintzetan parte hartu ahal izango dute, atzerriko unibertsitate batean seihileko bat edo ikasturte oso bat egiteko. Helmugan ikasleek egin beharreko ekintzak jardunaldi osokoak izango dira eta, ondorioz, egonaldiko irakastorduen pareko ikasketak egin beharko lirarteke (30 ECTS seihileko baterako eta 60 ECTS ikasturte osorako). Beraz, lortutako emaitzen arabera, eta araudi honetan zehaztutako baldintzak ezarrita, MGEPen seihileko bakoitzeko 30 ECTSra arte aitortu ahal izango zaizkio.

Ikasleak helmugako unibertsitatean ECTS kopuru txikiago bat gainditzen badu, MGEPen atzerriko unibertsitatean gainditutako ECTS kopurua osatzen duten ikasgaiak aitortuko zaizkio, edo aurre-aurreko kopurua. Inola ere ezingo dira aitortu helmugako unibertsitatean gainditutako ECTS kopurua baino handiagoa.

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

VI. MGEP-EN AITORTU BEHARREKO IKASGAIK EBALUATZEKO ERA

Azterrian egindako ikasketei dagokienez, tituluko ikasgaiak aitortzea erabakitzeke, lehenik eta behin, kontuan hartuko da ikasleak helmugako unibertsitateko ECTS guztiak gainditu dituen ala ez. Ikasleak ECTS guztiak gainditu baditu, tituluaren aitortu daitezkeen ikasgai guztiak helmugako unibertsitatean lortutako emaitzen batez besteko nota haztatuarekin kalifikatuko dira¹. Bestela, araudi honetan deskribatutako kasuen arabera kalifikatuko dira, honako baldintza hauek betetzen dituen ala ez kontuan hartuta:

A baldintza.- Gainditu gabeko ikasgaietan lortutako nota/k 10etik 3 puntu edo gehiago da/dira.

B baldintza.- helmugako prestakuntzan lortutako batez besteko nota haztatua 5,25 edo gehiago da (gainditutako kredituen zein gainditu gabekoen kalifikazioak kontuan hartuta).

VII. A MUGIKORTASUNA.- DB HITZARMENIK GABE MUGIKORTASUNEAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEAK.

VII.1. Mugikortasuna 4.ean (1. seihilekoa)

Ikaslearen emaitzak	A eta B baldintzak betetzen ditu?	Ikaslearen egoera MGEPen
VII.1.a. 1. kasua. Helmugako unibertsitatean 6 ECTS baino gutxiago suspenditu ditu	Bai ²	30 ECTSko GBLa egin eta aurkeztu ahal izango du ikasturte horretako bertako 2. seihilekoan (X ikasturtea).
	Ez ³	GBL lan bat egin ahal izango du X ikasturtearen 2. seihilekoan, eta lortu gabe dituen kredituak hurrengo ikasturteko otsailean errekeratu beharko ditu (X ikasturtea+1), edo hurrengo ikasturteetan, ez baditu horretan gainditzen. Araudi orokorrari jarraituz, GBLa amaitu eta gero gordailatu ahal izango da, baina ezingo da aurkeztu gainditu gabe dauden ikasgaiak gainditu arte.
VII.1.b.- 2. Kasua. 6 eta 12 arteko ECTS suspenditu ditu (hau da, gutxienez 18 ECTS gainditu ditu)	Bai ²	30 ECTSko GBLa egin eta aurkeztu ahal izango du X ikasturte horretako bertako 2. seihilekoan.
	Ez ³	Tituluaren taldeak bi aukera hauen artean erabaki ahal izango du, enpresek eskatzen dituzten proiektuen arabera: <ul style="list-style-type: none">• 42 ECTSko GBL bat garatu (45 ECTS 2017ko planekin egiten ari diren ikasketen kasuan), dagoen ikasturteko otsailetik (X ikasturtea) X-1 ikasturteko abendura bitartean, eta X+1 ikasturteko otsailean aurkeztu.• 30 ECTSko GBL bat garatu X ikasturteko bigarren seihilekoan, amaitu eta gero gordailatu, eta dagozkion ikasgaiak X+1 ikasturteko 1. seihilekoan egin. X+1 ikasturteko otsailean, ikasgaiak gainditu eta gero, GBLa aurkeztu ahal izango du.
VII.1.c.- 3. Kasua. 12 ECTS baino gehiago suspenditu ditu	Bai ²	30 ECTSko GBLa egin eta aurkeztu ahal izango du X ikasturte horretako bertako 2. seihilekoan.
	Ez ³	X+1 ikasturtera arte itxaron beharko du aurreko ikasturtean suspenditutako ikasgaiak gainditzeko eta 42 ECTSko GBLa egiteko (45 ECTS 2017ko planekin egiten ari diren ikasketen kasuan), mugikortasunean parte hartzen ez duten ikasleek bezala.

¹ Batez besteko nota haztatua honela kalkulatu da: ikasleak helmugako erakundearen gainditu dituen kredituen batura, horietako bakoitza dagozkion kalifikazioekin biderkatuta, eta erakunde horretan egindako egonaldian gainditutako kredituen kopuru totalarekin zatituta.

² Helmugako unibertsitatean suspenditutako ECTSei dagokienez, MGEPen 5 puntuko kalifikazioarekin gainditutaz joko dira ondorio guztietarako. Seihilekoko gainerako ECTSak helmugako unibertsitatean gainditutako ikasgaien batez besteko nota haztatuarekin kalifikatuko dira, 1. oharrean deskribatutako formularen arabera

³ Helmugako unibertsitatean gainditu ez diren ECTSak, MGEPen gainditu gabekotzat joko dira ondorio guztietarako. Seihilekoko gainerako ECTSak helmugako unibertsitatean gainditutako ikasgaien batez besteko nota haztatuarekin kalifikatuko dira, 1. oharrean deskribatutako formularen arabera.

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

VII.2. Mugikortasuna 4.ean (ikasturte osoa egin dute atzerrian (48 ECTS ikasgaietan + 12 ECTS GBLean)

Ikaslearen emaitzak	A eta B baldintzak betetzen ditu?	Ikaslearen egoera MGEPen
VII.2.a.- 1. kasua. Atzerriko egonaldiaren lehen seihilekoa amaitu eta gero, 12 ECTS baino gehiago suspenditu ditu	ez dagokio	Mugikortasuna amaitu eta MGEPeraz itzuli beharko du. Bigarren seihilekoari begira, lehen deskribatutako VII.1.c kasuarekin parekatuko da.
VII.2..b.- 2. kasua. Atzerriko egonaldiaren amaieran 18 ECTS edo gutxiago suspenditu ditu	BAI	12 ECTSko GBLa aurkeztu ahal izango du ikasturte horretan bertan (X ikasturtea).
	EZ	Lortu gabe dituen kredituak hurrengo ikasturteko otsailean errekuperatu beharko ditu (X+1 ikasturtea), edo hurrengo ikasturteetan, ez baditu horretan gaintzen. Araudi orokorrari jarraituz, ikasleak GBLa gordailatu ahal izango du, baina ezingo du aurkeztu gaintitu gabe dauden ikasgaiak gaintitu arte.
VII.2.c.- 3. kasua. Atzerriko egonaldiaren amaieran 18 ECTS baino gehiago suspenditu ditu	BAI	12 ECTSko GBLa aurkeztu ahal izango du ikasturte horretan bertan (X ikasturtea).
	EZ	Suspenditutako ECTS kopuruaren arabera, Tituluaren Taldeak bi aukera hauen artean erabakiko du: <ul style="list-style-type: none"> • 1.Aukera: X+1 ikasturtera arte itxaron beharko du aurreko ikasturtean suspenditutako ikasgaiak gaintitzeko eta 42 ECTSko GBLa egiteko (45 ECTS 2017ko planekin egiten ari diren ikasketen kasuan), mugikortasunean parte hartzen ez duten ikasleek bezala. • 2.aukera: Koordinazio Akademikoko Taldeak egoera aztertu eta X+1 ikasturterako egoera akademikoa proposatuko du.

VII.3. Mugikortasuna 3.ean

Ikaslearen emaitzak	Suspenditutako ECTSrik dago?	Ikaslearen egoera MGEPen
VII.3.a.- 1. kasua. MGEPen adierazitako eta bere tituluaren aitortutako ikasgaiak helmugako unibertsitatean egin ditu eta ECTS guztiak gaintitu ditu	EZ	ECTS guztiak aitortuko zaizkio, gehienez ere 30 ECTS seihilekoko, eta X+1 ikasturtean 4.era promozionatu ahal izango da.
VII.3.b.- 2. kasua. MGEPen adierazitako eta bere tituluaren aitortutako ikasgaiak helmugako unibertsitatean egin ditu, baina ez ditu ECTS guztiak gaintitu	BAI	Mugikortasuna lehen seihilekoan egin bada, 1. seihilekoan suspenditutako ECTS kredituak ezingo dira X ikasturteko 2. seihilekoan errekuperatu. Ikasturtearen amaieran ebaluazio globala egingo da eta Graduak araudi akademikoaren arabera jokatu da. Mugikortasuna ikasturte osoa izan bada, hau da, 60 ECTS egiteko, ikasturtearen amaieran ebaluazio globala egingo da eta Graduak araudi akademikoaren arabera jokatu da.
VII.3.c.- 3. kasua. MGEPen adierazitako baina bere tituluaren aitortu gabeko ikasgaiak helmugako unibertsitatean egin eta gaintitu ditu	EZ	Kasu honetan tituluaren taldeak aukera emango dio ikasleari bi aukeraren artean hautatzeko: <ul style="list-style-type: none"> • 1. AUKERA – X+1 ikasturtean 3. maila errepikatu, mugikortasuna egin zen ikasturtean aitortu ezin izan ziren ikasgaiak gaintitzeko. • 2. AUKERA – X+1 ikasturtean 4. mailara pasatu, eta GBL + Praktika egin, 30 edo 24 ECTS osatu arte (27 ECTS 2017ko planekin egiten ari diren ikasketen kasuan) 42 izan ordez (45 ECTS 2017ko planekin egiten ari diren ikasketen kasuan). Mailako gainerako ECTSak, 60 osatu arte, mugikortasuna egin zen urtean egin ez zituen 3. mailako ikasgaiekin osatu beharko ditu.

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

VIII. B MUGIKORTASUNA.- DB HITZARMENAREKIN MUGIKORTASUNEAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEAK.

Graduko 4. mailako ikasleek Erasmus egonaldiak egin ditzakete MGEPein hitzartutako unibertsitate edo goi mailako ikastetxeetan, Masterrean diploma bikoitzeko ikasketak egiten jarraitzeko (Atzerriko titulua + MU-MGEPeo Unibertsitate Masterraren titulua).

Kasu horietan, MGEPeo ikasleentzat identifikatu den prestakuntza ibilbideak ezartzen duenez, Graduko ikasketen 4. mailan ikasleak ikasturte oso bat egingo du atzerriko unibertsitate edo goi mailako ikastetxe batean, lortu nahi den Masterraren atzerriko diplomaren ikasketa planaren prestakuntza programan.

Ondorioz, MU-MGEPeo Graduko titulua eta Masterrerako sarbidea lortzea eta diploma bikoitzean jarraitzea atzerriko Unibertsitatearen ikasketa planeko prestakuntzan lortutako emaitzen arabera zehazten dira.

Erabaki hori hartzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Ikaslearen emaitzak	Suspenditutako ECTSrik dago?	Ikaslearen egoera MGEPen
VIII. a.- 1. kasua. Ikasleak atzerriko ikastetxean egindako ikasgai guztiak gainditu ditu eta Stage-a egin du ⁴	EZ	Egindako prestakuntza Graduko 4. mailaren baliokide moduan aitortuko zaio, Graduko titulua lortuko du eta diploma bikoitzaren ibilbidean jarraituko du.
VIII. b)- 2. kasua. Ikasleak ekainean 48 ECTS edo gehiago gainditzea helmugako Unibertsitatean egindako ikasgaietan, eta Stage-a eginda izatea	BAI	Urriaren 15era arte itxarongo da errekupeazioen emaitzak jakiteko. Urrian ikasturtea osorik gainditzen badu, egindako prestakuntza Graduko 4. mailaren baliokide moduan aitortuko zaio, Graduko titulua lortuko du eta diploma bikoitzaren ibilbidean jarraituko du. Ez badu gainditzen, ikasleak Graduko titulua lortuko du eta MU-MGEPen Masterrean sartu ahal izango da, baina diploma bikoitzera daraman ibilbidea utzi beharko du.
VIII. c) 3. kasua. Ikasleak ekainean 48 ECTS baino gutxiago gainditu ditu helmugako Unibertsitatean egindako ikasgaietan, eta Stage-a eginda izatea	BAI	Diploma bikoitzera daraman ibilbidea utzi beharko du, baina urriaren 15era arte itxarongo da errekupeazioen emaitzak jakiteko. Errekupeazioen ondorioz gutxienez 48 ECTS gainditzen baditu, Graduko titulua lortuko du eta Masterrean sartu ahal izango da. Ez baditu 48 ECTS gainditzen (edo 45 ECTS moldatutako ikasketa-planetan), MU-MGEPeo Graduko 4. maila errepikatu beharko du, falta zaizkion ikasgai eta konpetentziekin, araudi honetan jasotako kasuen arabera..

IX. HELMUGAKO UNIBERTSITATEAN LORTUTAKO KALIFIKAZIOEN BEHIN-BEHINEKO IZAERA ETA BEHIN BETIKOA

Ikasleei 2. seihilekoa MGEPen jarraitzen laguntzeko (mugikortasuna 1. seihilekoan egin bada), eta GBL lana aurkeztu eta defendatzeko baimena emate aldera, eta are gehiago Masterrerako sarrera Diploma Bikoitza bada (mugikortasuna 2. seihilekoan egin bada), ikasleak egonaldia egin zuen unibertsitatean lortutako kalifikazioen egiaztagiriri originala jaso bitartean, araudi honetako VII. eta VIII. ataletan deskribatutako noten bihurketa eta ebaluazioa behin-behineko kalifikazioak kontuan hartuta egingo dira.

Halere, behin-behineko tarte horretan ezingo da mugikortasunean lortutako kalifikazioen egiaztagiririk eman, eta ez da titulua eta Tituluaren Gehigarri Europarra emateko eskaria onartuko.

⁴ Testuinguru honetan, Stage-a Graduko GBLaren baliokidetzat hartzen da.

V. Eranskina- MUGIKORTASUN EGONALDIETAN LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

X. ESPARRUA ETA ESKUMENAK

Koordinazio Akademikoko Taldeak zaindu egingo du arautegi honetan xedatutakoa betetzen dela, eta egoki deritzen arauak eman ahal izango ditu bertan jasota ez dauden gaietarako.

Arautegi honetan xedaturik ez dauden kasuetan, Koordinatzaile Akademikoak erabakiko du dagokiona, interesdunak aurrez hala eskatuta eta kasu bakoitzean dauden inguruabarrak analizatu ondoren.

Arautegi honetan ondorengo aldaketak egitea Koordinazio Akademikoko Taldearen eskumen eskusiboa da, bertako edozein kidek hala proposatuz gero.

Arautegi hau 2020-2021 ikasturtean zehar egongo da indarrean.

Arrasate-Mondragon, 2020ko irailaren 1a

A ERANSKINA.- ATZERRIKO UNIBERTSITATE SISTEMEN KALIFIKAZIOAK ESPAINIAKO UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALIFIKAZIOETARA BIHURTZEA

MGEPeko ikasleek eta helmugako unibertsitateek kalifikazioak aitortzeko aurkezten dizkiguten 'Transcript of Records'-etan, ECTS kalifikazioez gain, beste unibertsitate sistemetako batzuk ere ematen dira, eta, ondorioz, kasu bakoitzari dagokion kalifikazio numerikoa zehazteko taula hau erabiliko da:

<http://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:269e23ac-8940-42b6-b455-35df18c753a3/anexo-i-escalas.pdf>

VI. ERANSKINA.- DEIALDI GEHIGARRIA ESKATZEKO ESKAERA-ORRIA

VI.Eranskina – Deialdi gehigarria eskatzeko eskaera-orria

VI.Eranskina – Deialdi gehigarria eskatzeko eskaera-orria

DEIALDI GEHIGARRIA ESKATZEKO ESKAERA-ORRIA

Orri barrenean sinatzen duenak, _____
(ikaslearen izen-abizenak)

_____ zbk.dun NAN-a duenak eta _____ Gradua ikasten ari
(Graduaren izena)
 denak,

ZERA AZALTZEN DU:

_____ (Graduko 1., 2., edo 3.) ikasmaila gainditzeko aukera guztiak agortu dituela. Halere, deialdi gehigarria eskatzea ahalbidetzen duten egoeretako batetan aurkitzen dela.

Horregatik,

ESKATZEN DU:

Ondoren zehazten den ikasgaiaren (edo ikasgaien) deialdi gehigarria egiteko aukera izatea:

Ikasmaila	Ikasgaila	Ikasgaiaren irakasle (ak)

Arrasaten, 202__ (e)ko _____-ren _____ an.